# ttipi-ttapa

264. zenbakia • 1999ko urriak 21 • XIX. urtea







**Mikel MINDEGIA:**
**Zubietako aizkolaria**

Gustora gelditu da 50 urteko aizkolaria Donezteben jokatutako Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finalean bigarren izan ondotik. Geroztik, Lekunberrin omenaldia jaso du.

☞ 28


**4 Erreportaia:**
**ITGk zientoka ikastaldi antolatzen ditu baserria hobetzeko**
Adin guzietako gizon-emakumeak animatzen dira ITG Formakuntzak antolatutako ikastaroetan parte hartzera.

**6 Gaurkotasuneko Gaia:**
Berako Udalak Ordezko Zerbitzurik ez eskaintzea erabaki du eta hiru lagunen iritzia bildu dugu.

**7 TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!





# AEK Egunak milaka lagun bilduko ditu igande honetan Saran

## *Lau tokitan banatu dira ikuskizunak: plazan, trinketean, errebotean eta kiroldegian*

Aldarrikapena eta besta, biak uztartuko dituzte igande huntan Saran. Horrelako egun haundiek duten besta giroa profitatuz, Euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera larria plazaratu nahi dute AEKkoek, *«afitxean ageri diren lagunak bezain larru gorritan dela salatuz»*. Beraz, *«ofizialtasunaren beharra, administrazioak AEK ezagutzea erakaskuntza erakunde gisa, eta Euskal Departamendua Ipar Euskal Herrian gutiengo egitura bezala»*. Gainerakoan, goiz-arratsaldez musika, dantza, joaldunak, errebote partidak, bertsolariak… izanen dira.

☞ 3



**☞ ELIZONDOKO FERIAK**

Urriaren 29an jendez gainezka eginen dute Elizondoko karrika eta jatetxe xokoek. Merkatuzelaian bilduko diren aziendak ikusteko aitzakian, erosketa eta besta eguna izaten baita udazkeneko lehen feria egun hau.

Erdiko gehiagarrian

ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
Kalitatea prezio egokian






LOGELAK
EGONGELAK
TRESILLOAK
KUTXAK
BESAULKIAK...

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780
LESAKA

IRUGLAS, S.L.
GRABADOS

MARMOLAK ETA GRANITOAK




- Hileta artea
- Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Ispiluak, kristalak eta zeramika grabatuak



Fraineko bidea • 948 637 412 • IGANTZI

DATUAK..........

❖ *Kattin Bergara, 24 urteko saratarra, AEK euskalduntze erakundearen permanenteko kidea eta Sarako Gau Eskolako erakaslea da.*

❖ *Igande huntan, urriak 24, Saran ospatuko den AEK Eguneko arduraduna ere bera da. «Ausarta izanez, hamar mila presuna etorriko direla uste dut».*

❖ *Bi helburu nagusi izanen ditu AEK egun honek: besta eta aldarrikapena.*

❖ *Besta, bereziki herriko lau tokitan eginen da: Herriko plazan, trinketean, errebotean eta kiroldegian. Gune guzietan jateko eta edatekoak izanen dira.*

TESTUA : AÑA MARI ETXEBERRI
ARGAZKIA : KARMELE TOLOSA

☞ **Kattin BERGARA** *AEKko kidea.*

# "Hamar mila lagun espero ditugu igande huntako AEK egunean"



Kattin Bergara saratarra da aurtengo AEK Eguneko arduraduna.

**NOLA SORTU ZEN SARAKO GAU ESKOLA? ZERTAN DA ORAIN?**

Gaztetxetik abiatu zen iniziatiba, bertako gazteek euskara ikasi nahi baitzuten. Ondotik eskaera zabaldu zen eta ondorioz eskaintza ere. Orain deneri idekia den gau eskola bat da. Euskara ikasi nahi dutenentzat edo dakitenek beren maila hobetzeko (idatzi, irakurri...).

**ZERGATIK AURTENGO AEK EGUNA SARAN OSPATZEN DA?**

Saran ospatzen da, guk gure burua aurkeztu dugulakotz. Iparraldean egitea Euskal Herri mailan erabaki zen. Baxe Nafarroan egin zen 1996an, beraz, aurtengo probintzia hori baztertu da. Ondorioz, bertze bi aukera bagenituen: Xiberua edo Lapurdi. Sarak bere burua aurkeztu zuenez, onartu da eta jo aitzina.

**ZER DA BESTA HORREN HELBURUA?**

Helburuak bi dira: besta eta aldarrikapena. Euskararen besta da, beraz euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera larria plazaratu nahi dugu ere, salatuz euskara hemen AEK eguneko afitxeko lagunak bezain larru gorritan dela. Beraz, ofizialtasunaren beharra, AEKren ezagupena erakaskuntza erakunde gisa administrazio desberdinengatik, eta Euskal Herri departamendu bat ipar Euskal Herrian guttiengo egitura bezala aldarrikatzen dugu.

**NOLA DOAZ ANTOLAKETA LANAK?**

Antolaketa aintzina ari da Saratarren parte hartzeari esker. Oso ongi goaz. Besta, bereziki herriko lau tokitan eginen da: Herriko plazan eginen da hasierako ekitaldia eta Skalariak taldearen aurtengo AEK Eguneko kantuaren aurkezpena. Goiz-arratsaldez, musika, dantza, joaldunak eta bertsolariak izanen ditugu. Trinketean musika izanen da eguerditik aitzin. Errebotean, goizez errebote partida jokatuko da eta ondotik, talde ezberdinen musika izanen da. Kiroldegian, egun osoan haurren xokoa izanen da, udaleku eta bertzelako animazioekin. Bazkaria ere kiroldegian eginen da eta arratsaldean, gau eskolen arteko txapelketa. Erran beharrik ez da, gune guzietan jateko eta edateko frango izanen dela, noski.

*"Euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera larria plazaratu nahi dugu, salatuz euskara hemen AEK eguneko afitxeko lagunak bezain larru gorritan dela."*

**ZONBAT PRESUNA ESPERO DITUZUE SARAN URRIAREN 24AN?**

Duela hiru urte Donapaleun zortzi mila bat lagun bildu ziren. Saran? Ainitz. Zenbaki bat ematekotan, ausartarena eginen dut: hamar mila!

**HITZ BAT TTIPI-TTAPAKO IRAKURLEENTZAT?**

«Euskaraz jauntzi hadi eta haugi Sarara!».







## ITG FORMAKUNTZA

# Urtero zientoka ikastaldi baserria hobetzen laguntzeko



Gaztagintza ikastaroan ateritako argazkiak

**ITGko Formakuntza atalak urteak daramazki jendea trebatzen baserriko ekonomian lagunduko duten hainbat eta hainbat aktibidade osagarritan. Baserrian bizi den familia osoa baliatzen ahal da formakuntza honetaz, berdin dio laborari edo ganaduzale izan. Ikastaldi hauek praktikoak dira, batez ere, eta irakaspen teorikoekin batera, irakatsitako gaiarekin zerikusia duen bisita edo ateraldia ere sartzen da normalki.**

Adin guzietako gizon-emaztekiak animatzen dira ikastaroetan parte hartzera. Eta ageri denez, bada bat baino gehiago ikastaldi desberdinetan ere apuntatu dena azken urteotan. Izan ere, iduri du baserritik bizi denak garbi ikusi duela profesionalki formatu behar duela, bere lanari probetxu osoa ateri nahi baldin badio, bederen.

Fermin Maeztuk, ITG-Formakuntzako koordinatzaileak erran digunez, *«formakuntza epe luzera egiten den lana da, inbertsio bat azken finean. Jakina da, gaur ikastaldi batera etortzen denak ez duela bihar bertan aplikatuko ikasi edo ikusi duena, bainan dena dela, nabaria da formakuntzan hasten denak, gustatu eta ikastaldi gehiagotan ere hasten dela generalean».*

TESTUA:
**JOXEMANUEL IRIGOIEN**

### Gaztagintza ikastaroa akitu berria

Ikastaro honetara urtero animatzen da jende franko. Bertze batzuetan Doneztebeko Juansenea etxean egin bada ere, aurten Iruñean egin da, eta hantxe ikusi genuen Maribel Lastiri, Urdazubiko *Etxeleku* gasnategiko etxekoandrea. *«Aski interesgarria»* atxeman omen du ikastaldia Maribelek *«beti izaten baita zer ikasi»*. Etxelekun ardi eta behi gasna egiten dute, eta urte guzian aritzen dira.

Eskola-emaile bat baino gehiago izan dute buruilaren 20an hasi eta urriaren 5a bitarte iraun duen ikastaroan. ITGko teknikoekin batera, Jose Antonio Otxandorena *Artzai-Gazta*ko teknikoaren jakinduriaz baliatu dira. Hainbertze gauza ikasi dute: esnearen eta gasna-egitearen inguruko ikasgai teorikoak, gasna egitearen teknikak praktikan jarri, gasnategi bat bisitatu, gasnategi berri baten proiektua nola egin eta bideragarritasun ekonomia aztertu, gasna-probatzea... denetarik.

Dena den, aski gai diferenteen gainean antolatzen ditu ikastaldiak ITGk. Informatika eta kontabilidadea, turismo iharduerak, janarien kontserbak, fruta arbolen kudeaketa, artzai zakurrak trebatu... bada denetarik. Kasik denak aitzinetik programatuak izaten dira generalean, bainan toki batean nahikoa jende elkartuko balitz, inguru horretan ere izanen zen posibilitaterik ikastaro bat antolatzeko. Honen inguruan argibide gehiago nahi duenak aski du ITGra telefonoz deitzea, eta han argituko diote.

### Ikastaro gehiago hurrengo asteotan

Hasieran aipatu bezala, urte osoan, eta Nafarroako herri desberdinetan antolatzen dira ikastaldiak. Ondokokoadroan ageri dira hiru aski interesgarriak. *«Alternatibak abeltzaintza tradizionalari»* izenekoa Donezteben emanen da, eta bertze biak Iruñean. Norbaitek horietako bakarren batean parte hartu nahi balu, 948 27 80 11 telefonora deituz argibide zehatzagoak emanen dizkiote. ■

**NEKAZARIEN FORMAKUNTZA**

✆ 948 278011

San Jorge, 81 - Eskuineko solairuartea • 31012 IRUÑEA (Nafarroa)

## IKASTALDIAK • IKASTALDIAK • IKASTALDIAK • IKASTALDIAK

## Alternatibak abeltzaintza tradizionalari

**HELBURUA:** Eskualdeko abeltzaintzaren azterketa orokorra eta dauden alternatiba posibleak ikusiko dira. Bidenabar, bertze abeltzainen esperientziak ezagutzeko bidaiak ere izanen dira.

**NOIZ:** Lau egunetan: urriaren 25 eta 26an, eta azaroaren 2 eta 3an.
Goizeko 10etatik eguerdiko 1etara .

**NON:** Doneztebeko Juansenea etxean

**IKASTAROAREN EGITARAUA:** Bi zati izanen ditu, hitzaldiak eta bisitaldia:

A.- Hitzaldiak:
- 1.eguna: «Abeltzaintza sistema desberdinen emaitza ekonomikoak» Juan Manuel Intxaurrandieta, Garbiñe Elizainzin eta Mª Puy Lana
- 2.eguna: «Nekazaritzako elikagaien eraldaketa» Jose Miguel Ameztoi
  «Abeltzaintza ekologikoa» Eduardo Perez de Obanos
  «Abeltzaintzako produkzio berriak» Txelo Dolado
- 3.eguna: «Ekimen turistikoak» Joxepi Mihura
  «Laborantza desberdinak: plastiko azpian eta aire librean» Angel Gainza
  «Oihangintza ekimenak» Jesus Garitazelaia

B.- Bisitaldia: Egun osoko bisitan Gipuzkoako bi esperientzia ezagutuko dira.

## ARCPC Autokontrol sistema gasnategietan

**HELBURUA:** Autokontrol sistema prestatu, abian jarri bakoitzak duen gasnategian eta segimendua egitea.

**NOIZ:** Azaroaren 8, 10, 12, 15, 17 eta 19. Denetara 24 ordu.

**NON:** ITGren egoitzan, San Jorge, 81 IRUÑEA

**IKASTAROAREN EGITARAUA:** Hiru zati izanen ditu:

1.- Ikastaro teorikoa ITGko egoitzan (San Jorge).
2.- Lau bisitaldi gasnategietara. Bakoitzean 3 ordu.
3.- Lau biltzar heldu den urtean. Egun bakoitzean 4 ordu.

## Esneki eta gaztagintza ikastaroa

**HELBURUA:** Produktuen dibertsifikazioak duen garrantziaz ohartarazi nahi da ganaduzalea, eta aldiberean, gasna, jogurt eta bertze esnekiak egiten irakatsi.

**NOIZ:** Azaroaren 22tik abenduaren 1a bitarte. 35 ordu denetara.
Goizeko 9etatik eguerdiko 2etara.

**NON:** ITGren egoitzan, San Jorge, 81 IRUÑEA

**IKASTAROAREN EGITARAUA:** Hiru zati izanen ditu:

1.- Ikastaro teorikoa ITGko egoitzan (San Jorge). Denetara 15 ordu.
2.- Jogurt eta gasna egiten ikastea Unibertsitate Publikoan. Denetara 10 ordu.
3.- Bi bisitaldi bi lantegitara. 10 ordu.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
e-mail:
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. Presidentea: Pello Apezetxea. Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien. Zuzendaria: Aitor Arozena. Publizitatea: Kulturkari, S.L. Administrazioa: Amaia Goia. Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza. Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... Inprimategia: Gertu. Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .140 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . . .3.500 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . . .15.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Berako Udalak Ordezko Zerbitzurik ez eskaintzea erabaki du

## Soldaduskarik ez, ordezko zerbitzurik ere ez



Oskar GOÑI
Intsumitua eta zinegotzia

Eragozpen eskubidea mundu mailan onartutako eskubidea izan arren, soldaduskaren legeak eskubide hori murrizten du, eragozleak ordezko zerbitzua betetzera behartuz. Estatuak gazteok horretara lotu nahi baldin baditu berak lotu ditzala. Herriko Etxeak ez inongo elkartek ez du zertan zakur lanik egin behar estatuarentzat. 96an 130.000 eragozle zerbitzua betetzeko zain zeuden, 98an berriz 15.000 inguru. Intsumisioaren gorakadaren arrimoan eragozleen kopuru altua trabazen estatuarentzat, hainbertze jende zertan enplegatu ez zekiela.

Baina tokian-tokiko eragozleak onartzean presiobide hori desagertu da. Gauzak horrela gobernuak auzia luzatzeko astia hartu du, Aznarrek hauteskunde kanpainan derrigorezko soldaduska mendearekin desagertuko zela iragarri zuen, gero 2001 aipatu zuten, eta orain 2003. Epe hori bi baldintzen arabera bete edo luza daiteke: 1- Ejertzito profesionala eratzea gostako zaion denbora. 2- Soldaduskarekin bukatzeko sumatzen duten presioa. Guk bigarren baldintza honetan eragin behar dugu, intsumisioa bultzatuz eta ordezko zerbitzua betetzeko plazak desagertaraziz. Norberak bere buruarentzat irtenbidea bilatzeak ez gaitu inora eramaten.

## Gure helburua 2.003. urtera deus egin gabe ailegatzea da



Julian IGANTZI
Lesaka

Berako Udalak erabaki hori hartu zuela aditua nuen. EH eta EAkoen botoekin onartu zen, eta EAJkoek aurka bozkatu zuten. Gai honi buruz badira bi irizpide: batetik, irizpide ideologikoa dago, antimilitarista. Alde honetatik ezin dute onartu objezioa, soldaduskaren ordezkoa baita.

Baina bertze irizpide batere badago. Ni intsumisioaren alde nago, bainan ikusten dut 2.003. urtean ezagutzen dugun soldaduska hau bukatu eginen dela, eta beraz, borroka hau irabazita dagoela. Hori kontuan hartuta, pentsatzen dut Berako Udalak jendeari zerbitzu on bat ematen ziola. 120 lagunek egin dute ordezko zerbitzua Berako suhiltzaileetan, eta orain badaude 40 gazte beratar egiteko esperoan. Zer gertatuko da hoiekin? Kanpora joan beharko dute, edo Gure Txokoan edo Toki Onan sartuko dira ordezko zerbitzua egitera? Hor plaza gutti daude, eta batzuk kanpora joan beharko dute nahitanahiez.

Hala ere, prorrogak eskatzen ahal dira edo bertze bideak hartu, gure helburua 2.003. urtera deus egin gabe ailegatzea baita. Nik pentsatzen dut urte hortara ailegatuta libratuko direla, baina legea eskuan hartuta, ezin da hori segurutik erran. Beraz, Beran arazo bat sortzen ahal da, edo ez...

## Kontzientzia objetorea ez, komenientzia objetorea izan nintzen



Igor ORDOKI
Berako objetorea

Ni joan den urteko azaroan egin nintzen objetore, eta aurtengo ekainean bukatu dut. Printzipioz Berako suhiltzaileen parkean egin beharra nuen objetoretza, bainan bertze aunitz bezala, ez nintzen egun bakar batean ere agertu.

Ministeritzako eskutitza hartu nuenean alkatearekin solastera joan nintzen, kanpoan lan egiten dudala abisatzeko. Honek zerbait baldin bazen abixtuko zidala erran zidan, bainan 8 hilabete hoietan ez zuen behin ere deitu.

Hala ere, aurtengo maiatzean Igantzitik deitu zuten, han inspektorea agertua zela erranez, eta erne egoteko. Orduan Berako objetoreek bilera bat egin genuen, eta suhiltzaileen parkean guardiak egitea erabaki genuen.

Handik denbora guttira bertze eskutitz bat jaso nuen, erranez objetoretza betea nuela eta hurrengo hiru urtetan zerbait pasatu ezkero nahitanahiez agertu beharko nuela. Beraz, 'erreserban' nago oraindik.

Nik argi dut Berako suhiltzaileetakoa egon izan ez balitz soldaduskara ez nintzela joanen, eta horko jende gehiena ere ez seguraski. Kontzientzia objetore baino komenientzia objetorea izan nintzen ni.

Orain ikusi beharko da jendeak ze bide hartzen duen.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## DESKONTUAK

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN




# TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

☎ **948 63 11 88**

**Joan den asteko sarreren irabazleak:**

Felix Apezetxea (Arantza)
Aritz Perez (Bera)
Edurne Zubieta (Sunbilla)
Sandra Pikabea (Elizondo)
Nerea Altzuri (Arantza)

BORDATXO

# HEMENTXE GAUDE!!

## Larunbat honetan,

23 LARUNBATA

EKLIPSE

**Astero 6 sarrera** zozketatuko dira. Zozketan parte hartzeko, deitu ortzeguna baino lehenago 948 63 11 88 telefonora.

### ARGAZKIAK

**AYLA**
BERA
Tfnoa.: 948 63 00 75
- %10 merkeago argazki makinetan izan ezik

**FOTO GOIKO**
BERA
Tfnoa.: 948 63 05 15
- %10 merkeago karreteetan, errebelatzeetan...

### ARROPA DENDAK

**Juan. J. PIKABEA**
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 16 70
- %10 galtza-marka batzuetan ez

**Txirrista**
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 16 49
- %10 (2.500etik goiti)

ARROPA DENDA
**MERCERIA FANTXIKE**
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 03 12
- %10 (5.000 ptatik aurrera)

## DESKONTUAK

### ARROPA DENDAK

**Osiña**
LESAKA
Tfnoa.: 948 63 79 51
- %10eko deskontua

### ELEKTROGAILUAK

**ALZURI** Elektrogailuak
ARANTZA
Tfnoa.: 948 62 75 31
Mug.: 608 778 894
- %5 elektrogailuetan

### ZAPATADENDAK

**CASA OSTIZ**
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 02 89
- %5 deskontuak

**GOÑI**
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 01 62
- %10 (2.000 ptatik goiti)

KOLABORAZIOAK

Pello APEZETXEA *Etxalar*

# Zergatik ttikitzen ari dira gure herriak?



TTIPI-TTAPA banatzen den eremuko herriak ttikiak dira. Gehienak hagitz ttikiak, 500 bizilagunera ailegatzen ez direnak erdiak baino gehiago baitira: hogeita bi. 500 eta 1.000 artean dabiltza zortzi. Kopuru hori zazpik soilik gainditzen dute. Haundienak kenduta, ia denak ttikitzen segitzen dute, guttika bada ere. Hau dena aski ongi ikusten ahal da, joan den abuztuan TTIPI-TTAPA barnean banatu zen LURRA aldizkarian.

Gauza hauek jakin eta berehala bururatzen zaigu galdemodua: Zergatik?

Zergatik ari dira hustutzen, kanpotarrek hainbatetan laudatzen dituzten herriak? Gure herriak, lasaiak izateaz gain, politak dira, bai beren etxegintzagatik, bai inguruagatik. Gure herriak bizitzeko atseginak ere badirela uste dugu. Bertze herrietara nahiz hiriburura joateko autoak ematen digun aukerarekin, hiriaren zerbitzuak hurbildu egin zaizkigu eta herri eta jende arteko harremanak erraztu. Hori guzia horrela izanik, zergatik ari da jendea urritzen?

LURRAk berak badakarzki, erantzuna laguntzeko, aditu batzuen burubideak. Biztanleen banaz bertzeko adina, irabazbideak, etxebizitzak, zerbitzuak, dira haiek aipatutako arrazoi batzuk. Baina jakin nahi nuke zenbat herritan egin den bilgurarik, orain edo lehen, herriaren ttikitzea aztertzeko. Jakin nahi nuke zenbat herritako Herrikoetxean begiratu den gai hori, eta ze ondorio atera dituzten. Aditu edo teknikoena bezain interesgarria izanen litzateke, herrietako bertako jendeen eta arduradunen iduria ezagutzea.

Badakit gaia zailegitzat jokodue la hainbatek, herri ttiki baten ahalmenaren gainetik dagoela, alegia. Eta neurri batean hala dela uste dut nik ere. Hala ere, badira herriak egiten ahal dituen gauzak. Eta badira, herriek elkar hartuta gainditzen ahal dituzten zailtasunak: bide nagusiak, lantegiak, zenbait zerbitzu. Bide horretatik doaz sortzen ari diren Mankomunidadeak. Bertzetan, ordea, Mankomunidaderik sortu beharrik ere ez da, herriak elkarrekin bildu, elkarrekin aztertu eta ahalmenak elkartzea nahikoa da. Zaila dela hori ere? Egoera zaila denean, aterabide errazik ez da izaten. Baina, hil edo bizikoa denean, ez du saiatzea merezi?

> **Jakin nahi nuke zenbat herritan egin den bilgurarik orain edo lehen, herriaren ttikitzea aztertzeko. Jakin nahi nuke zenbat herritako Herrikoetxean begiratu den gai hori, eta ze ondorio atera dituzten. Aditu edo teknikoena bezain interesgarria litzateke.**

Itoizko Solidarioekiko Elkartasun taldeak

# Itoitzeko solidarioekin elkartasuna

Itoitzeko presaren kableak moztu zituzten Itoitzekiko Elkartasuna taldeko 8 kideen aurka agintariek errepresio justifikaezina bideratu dute. Auzitegi Gorenak azken epaia kaleratu du joan den irailaren 13an, bakoitzari lau urte eta hamarhi labeteko espetxe zigorra ezarriz. Asko gara Solidarioen ekintzarekin guztiz bat gauden pertsona eta taldeak.

Ekintza honek epaitegien aldetik gehiegizko jazarpena izan du. Hala, kasik 5 urteko espetxe zigorra ez zaie kableen mozketarengatik ezarri, gezurrezko "atxiloketa ilegala" leporatuz baizik, Guarda Juratua bost minutuz menpean hartu zuten aitzakiapean. Solidarioei kableen mozketa bezalako ekintza garbi batengatik ezarritako kondena, beraz, Segundo Marey bahitu zuten poliziei jarritakoaren parekoa da.

1995ean Itoitzekiko Elkartasuna taldea sortu zenetik, ekintza ugari egin dituzte, bai proiektu desarrollista suntsitzaile hau bultzatzen duten instituzioak salatzeko, bai Auzitegi Nazionalak berak legez kanpokotzat dituen lanak geldiarazteko ere. Borrokabide gisa ekintza zuzena hautatuz, modu publikoan eta bortxakeriarik gabe, ekintzen ondorioak beren gain hartu dituzte beti. Taldeko beste bi lagunek 3 urteko beste espetxe zigor eskaera baiti ere aurre egin behar diotela gogorarazten dugu, urtegia inguratuko lukeen legez kanpoko errepidearen eraikuntza lanak aldi baterako geldiarazi zituen beste ekintza batengatik.

Bienbitartean, administrazioak lanekin aurrera darrai, temati. Argi dago, alde batetik, botere politiko-ekonomikoek inposatutako politika eta gizarte eredua zalantzan jartzen dituztenak zigortzen dituen lege gogorra dagoela, eta, bestetik, urtegiaren lanak nola edo hala aurrera jarraitzeko administrazioari laguntzen dion inpunitatea.

Solidarioen aurkako kondena hori bete ez dadin gure borondate trinkoena agertu eta berehala mugitu beharrean gaude. Itoizko basakeria galditzeko halako sentsibilitatea eta konpromezu bizia erakutsi duten lagun hauekin batera, kableen mozketarekin eta urtegiaren aurkako borrokarekin bat egiten duen jende guztia kondenatu baitute.

Hortaz, elkartasun ekintzak egitera animatu eta indarrak biltzeko urriaren 30ean Iruñeako Gaztetxean (San Agustin karrika, 17) arratsaldeko 4etan eginen den bileraren berri ematen dizuegu. Deialdi honen berri zuen inguruan zabaltzea eta egingo diren elkartasun ekintzen inguruan harremanetan segitzea eskatzen dizuegu.

> **Solidarioei kableen mozketa bezalako ekintza garbi batengatik ezarritako kondena, beraz, Segundo Marey bahitu zuten poliziei jarritakoaren parekoa da.**

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 99ko urriak 11

*«Nik 25 urte pasatu ditut pilotan. Lehenagokoa ezagutu nuen, 80. eta 90. hamarkada eta erabat desberdina da. Informatikaren garaitik ahoberoen garaira pasatu gara. Hobekien solasten duena eta hobekien saltzen duena, hori da onena. Ez egitan hala dena»*

**Julian RETEGI**
ERATSUN
Diario de Noticias 99-10-11

*«Nahiko desgrazia banuen aurretik, errekuperatu nahi nuen pilotan hasteko... eta orain berriro ospitalean eta makuluekin ibili behar. Etsitzeko ere bada, baina morala behar da luzerako. Gorputzak gorabehera handiak izaten ditu, batez ere buru aldetik, baina ez hondoratu, behintzat. Segi, segi, segi».*

**Julian RETEGI**
ERATSUN
Egunkaria 99-10-15

## 11 GALDERA LABUR



**Batixta TELLETXEA**
BERA
Lasterkalaria

◆ **Lurraren eguneko gasna lehiaketan epaile modura aritzen zara? Zer baloratzen duzu gehien?**
❖ Batez ere gustua, baina baita textura, itxura, usaina eta azala ere.

◆ **Zein da probatu duzun gasnarik hoberena?**
❖ Donamariako atton batek ehun durotan saldutakoa.

◆ **Batzuk diotenez, harrak dituen gasna omen da hoberena...**
❖ Jende gehienari ez zaio gustatzen baino neri bai. Hala ere guttitan jan izan dut. Fuerteak dira hagitz.

◆ **Nork irabaziko du aurten Lizuniagako igoera?**
❖ Antonio Bruk, ateritzen bada behinpin.

◆ **Gure Txokoako atletismo taldeak izanen du gazteen erreleborik?**
❖ Zaila, baina nik uste baietz. Badira hiru-lau mutiko gogoekin.

◆ **Zein da hemen inguruko krosetan gogorrena?**
❖ Sarako kontrabandistena, dudarik gabe. Azkain eta Baigorrikoak ere aski gogorrak dira.

◆ **Egundaino hutsik egin ez duzun lasterketa:**
❖ Lizuniagako Igoeran beti korritu izan dut.

◆ **Zergatik horrenbertze jende Behobia-Donostian eta herriz herriko lasterketetan horren gutti?**
❖ Fama hartu duelakoz, baina pena bat da nere ustez.

◆ **Ezagutu gabe miresten duzun pertsona bat?**
❖ Marino Lejarreta.

◆ **Zein herrialdetan biziko zinateke Euskal Herritik kanpo?**
❖ Ez dut egundaino pentsatu, ezta pentsatu nahi ere...

◆ **Ze animalia izan nahi zenuke hil eta ondoko bizian?**
❖ Zaldia, bakarren bat errateagatik.


**KULTURKARI**
**Publizitate Agentzia**

Zure iragarkia Diario Vasco, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Gara, Egunkaria, El Correon... ETBn, Euskadi Irratian, COPEn, SERen... agertu nahi baduzu, deitu 948 63 11 88 telefonora.

- Zure denda, lantegi, etxetik mugitu gabe gestionatzen dugu.
- Kontsultatu tarifak.
- Aurrekontuak egiten ditugu.

☞ **KULTURA**

# Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren azken saioa Bordatxon eginen da

## Abenduaren 18ko finalaren aitzinetik, Tafallan eta Lizarran izanen dira kanporaketak



Kanta zaharrak edo berriak eramaten ahal dira, baina beti ere modu herrikoian abestuak, inolaz ere goi mailako polifoniaz edo rock moduan.

TTIPI-TTAPA

Tafalla, Lizarra eta Doneztebe izanen dira aurtengo Euskal Kantu Txapelketak bisitatuko dituen herriak. Kantatzeko ohitura sustatzea eta euskal kantutegia berritzea dira txapelketa honen helburu nagusiak eta horretarako, berrikuntza gisara, finaleko saioa CD batean grabatuko da.

Txapelketa azaroaren 20an, arratsaldeko 5etan abiatuko da Tafallako Kultur Etxean. Bigarren saioa Lizarrako Golem aretoan eginen da abenduaren 11n, arratsaldeko 5etan eta final haundia, berriz, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan izanen da abenduaren 18an, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera.

### Izena emateko epea azaroaren 10ean akautuko da

Izen emateko epea azaroaren 10ean akautuko da eta horretarako Nafarroako euskal irratietara jo behar da. Eskualdean, beraz, Xorroxin Irratian (948 581226 telefonoa) edo Karrape Irratian (948 610914) egiten ahal da izen ematea.

Hamabortz urtetik goitiko edozeinek hartzen ahal du parte, bakarka, bikoteka nahiz 3 edo 10 partaide arteko taldetan. Musikaz laguntzen ahal da interpretazioa, bai na kantua baloratuko da. Hiru pertsona ezagun arituko dira epaimahai lanetan: Fermin Iriarte, Zangotzako Nora abesbatzako zuzendaria; Amaia Zubiria, kantari famatua eta Koldo Pastor, Iruñeko Ganbara Abesbatzako zuzendaria.

Aipatu bezala, finaleko kantuekin CD bat argitaratuko da eta horrek finalerako partaideen zenbakia hamalaura mugatu du eta gehienez lau minutuko kantuak abestuko dituzte. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, diska ez da salgai aterako, baina Euskal Kantuzaleen Elkarteko kideen eta interesa dutenen eskura izanen da.




Loredenda Azalea

TELEFLOR INTERNATIONAL

✳ Zentroak aukeran
✳ Loreak, krisantemoak, klabelak...
✳ Landareak, ziklamenak, azaleak...

Altzate 26 · ✆ 948 631 121 · BERA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

GOZOTEGI - JAIONE

Altzate, 19·948630786 ·BERA

zapatak
osagarriak
konponketa
kalotxa
Kanttonberri 6 Bera
✆ 948 631516

## BERA

# Hamahirugarren Lurraren Eguna ospatuko da urriaren 31n

Euskal Herri osoko 70 artisau inguru bilduko da Altzate karrikan

ASIER GOGORTZA

Altzaten bilduko dira, bai, baina eguraldi ederra egiten badu bakarrik jartzen ahalko dira kanpoan. Bertzenaz, ohi bezala, Altzateko frontoiaren idorpean izanen dira artisauen postuak.

Goizean goiz Lizuniagako Igoera eginen da motorrak berotzeko, eta 11etatik aitzinera eskulangileek beren tresnak eta janariak jarriko dituzte ikusgai (eta salgai). Egun guzian ez da musikarik eta animaziorik faltako, aurten "Irats" eta "Maixa eta Ixiar" taldeak arduratuko baitira horretaz. Bertzalde, pilotazaleek ere zita haundia dute egun horretan. Alde batetik Errandonea eta Beloki anaiak elkarren kontra arituko dira eta, bertzetik, lau terdiko txapelketako partidua.

Sagardo eta Gasna lehiaketak, enkantea, taloak... denetik izanen da egun horretan, eta kontuan izanik biharamuna besta eguna dela, ez da erran beharrik giro ezinhobea izanen dela Beran baserritarren egunean.

### Euskal Presoak Euskal Herrira

Herriko Etxeko agiri ofizial guzietan euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen duen seiloa jartzea proposatu zuen mozio baten bidez Bortzirietako Herri Ekimenak. Berako Udalbatzak bozkatu egin zuen mozioa, eta EA eta EAJren kontrako 6 botoengatik ez zen aitzinera ateri, EHko 5 ordezkariek aldeko botoa eman bazuten ere. EAkoek eskaerarekin ados zeudela adierazi zuten, bainan hori ez zela modurik «egokiena» adierazi zuten, «bertze modu batzutan adierazi daiteke-eta». EAJko zinegotziek ere gauza bera azpimarratu zuten. EHk, bere aldetik, modu hau ez bada egokia bertze moduren bat proposatu dezala eskatu zien EA-EAJri. Gainera, EHko zinegotzientzat «lotsagarria» da EAren jarrera, talde hori mozioa aurkeztu zuen Herri Ekimenaren barrenean dagoelako.


Argazkia: Asier

### Lamixine taldearen lehen antzerkilan profesionala, larunbat honetan Berako karriketan

«Done jakuera (edo Santiagora) bidean» izena du obra berri honek, eta larunbat honetan estreinatuko dute Beran. Argazkian ageri diren 5 aktoreak (Ramon Albistur, Marian Biurrarena, Joxelu Berasategi, Raul García eta Ander Munarriz) eta Maria Agirre izanen dira peregrino papera eginen dutenak. Kale Antzerki hau Berako plazatik abiatuko da arratsaldeko 7etan, eta peregrinoekin batera Santiagoko bidearen puska bat eginen dute ikusleek ere. Sorpresa berexiren bat ere prestatu dute, ohi bezala.

### flash

**Udal zergak**
Azaroaren 15a arte zabalik dago 99ko Kontribuzio-Tasak ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiriak exekutibo bidez kobratuko dira, beharbada interesak gehituta.

**Fernando Etxegarai**
Beratar hau Nafarroako Txapeldun suertatu zen Berako bestetan egin zen koxkor-biltze txapelketan. Geroztik Euskal Herriko txapelketan hirugarren egin zuen, eta orain, Euskal Herrialdetako kirol txapelketan parte hartu du. Proba hori Getxon egin zen igande honetan.

**Mikel Urdangarin**
Urriaren 22an, arratseko 10etan, Berako Kultur Etxean izanen da bakarlari hau, Labiaga Ikastolaren 25. urteurrena dela eta.

### 27 lasterkalari Berako Mendi Krosean

Mikel Alapón irundarrak irabazi zuen aurtengo an Agerra Mendi Taldeak antolatzen duen proba hau, 56 minutu eta hamabortz segunduko denborarekin. Beraz, ez du hobetu Agustín Garciñuñoren marka, 52 minutu eta 6 segundukoa. Lehen beratarra Bautista Telletxea izandu zen.

Proba honen ibilbidea arrontean gogorra da: Agerrako elkartetik gasolindegi aldera eta handik Garmendiko bordara, gero Mitxinbordatik Idoiako lepora, Dornaku, Lizardi eta Maletera. Gero berriz goiti Zumaleku aldera, handik herrira jautsi eta oraindik Kaxerna goitu behar dute lasterkalariek. Hortik Agerrako helmugara, ahal den bezala.

Botxo Ostatua
© 948630052·Zalain·BERA

Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

ABOKATUA
Bidasoa, 26 • © 948 631037 • BERA

## LESAKA



Ikastolako lehen ikasle taldea 1974ko olentzero egunean. Ezker eskuin, Xabier Portu, Edurne Tapia, Ainhoa Telletxea, Eukene Oiartzabal, Aitor Aranguren, Ostaitz Goia eta Unai Goienetxe. Artxibokoa

# Ikastolako lehen ikasle eta gurasoei omenaldia eginen zaie urriaren 30ean

### Arratsaldeko bertso-tramaren ondotik, afaria izanen da Koxkonta jatetxean

AITOR AROZENA

Tantirumairu ikastolaren sorreraren 25. urteurrena ospatuz egiten ari diren ekitaldien barrenean, heldu den larunbatean, urriak 30, omenaldia eskainiko zaie ikastolako lehendabiziko ikasle eta gurasoei. Arratsaldeko 6etan hasiko da omenaldia udal pilotalekuan. Ikasle eta gurasoei aurreskua dantzatuko zaie eta gero, bertso eskolako ikasle eta ikasle ohiek bertso bana abestuko diete. Ondotik, bertso trama izanen da, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jon Maia eta Igor Elorza bertsolariekin. Josu Goikoetxea izanen da gidoigilea. Arratseko 9,30etan afaria izanen da Koxkonta jatetxean. Txartelak salgai daude urriaren 26a bitarte okindegian, 2.200 pta-tan.

Egunotan hasiko da, bertzalde, ikastolako pilotalekuan jokatuko den helduendako eskupilota txapelketa.

### Dantzari Txiki Eguna igande honetan izanen da

Igande honetan, urriak 24, ospatuko da Irain dantzataldeak antolatutako Dantzari Txiki Eguna. Herriko Irain eta Tantirumairu taldeekin batera, Berriozarko Txori-zuri, Lizarrako Larraintza, Lezoko Murixka, Berako Gure Txokoa eta Legapi eta Igantziko dantza taldeak ariko dira.

11etan parkean bilduko dira eta berehala desfilea hasiko da. Talde bakoitzak bere ibilbidea eginen du herriko karriketan barna. Plazan bazkaldu ondotik, neska-mutikork etxeetan bazkalduko dute. Arratsaldeko 5etan dantza jaialdia eskainiko dute talde guziek, plazan.



### Jone Fagoaga eta J.B bere zakurra Munduko txapelketan

Espainiako txapelketan bigarren izan ondotik, asteburu honetan Italian jokatutako Munduko txapelketan parte hartu dute Jone Fagoaga ehiztari gazteak eta J.B. bere zakurrak. Joan den urtean, Kroazian hirugarrena izan zela kontuan hartuz, itxaropenez betea joan da Arezzo herrira Fagoaga. Hurrengoan emanen dugu lortutako emaitzaren berri. Artxibokoa

## flash

### Bortzirietako Euskaltegia

Martxan daude EGA ateratzeko ikastaroak. Bi aukera dituzte azterketa hau prestatu behar dutenek: astegunez, astelehenetik ortzegunera aritzea, arratsaldero bi orduz. Bertzenaz, larunbatetan lau orduz aritzen ahal dira goizez. Apuntatzeko 948 637 796 telefonora deitu behar da. Urteko matrikularen prezioa 31.000 pezetakoa da astegunez aritu behar direnentzat eta 27.000 pezetakoa larunbatetan aritu behar direnentzat. Hori bai, EGA ariketa liburuak dohainik izanen dira.

Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
✆ 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

## ETXALAR

# Kultur Etxea lehenbailehen osotu nahi da Herrikoetxea izandakoan

Etxe barrenak egiteko laguntza espero da

PELLO APEZETXEA

Herrikoetxe izana Kultur Etxe bihurtzeko intentzioa du Udalak, jakina den bezala. Kanpotik moldatu eta zaharberritu izanagatik, barrenak hutsak daude, solairuez gainerakoak. Barren horiek egitekotan dabiltza orain, baina horretarako dirulaguntza ere behar da. Cederna-Garalurrek etxe barrena nola zatitu pentsatzeko bere laguntza eskeini du, eta dirulaguntza zerbaiten esperantza ere bai.



Haur eta helduek gozatu zuten, antzeztutako ipuin politaz. Ikusgarria da antzerkiaren tokiko dekorazioa eta medioen prestakuntza.

### Zabaleta mendia Altza enpresak landatuko du

Altza enpresari eman zaio Zabaleta mendia landatzeko lana, berea izan baita eskeintza bakarra. 9.322.000 pezeta kostako den lan hau, bertze batek hasi zuen, Dehesa izeneko enpresak.

### Hamasei milioiko oihan zatiaren enkantea

4.696 zuhaitzko multzoa salduko du Udalak, pinu insignis, haritz amerikarra, lawson eta alertzez osatua. Hasierako prezioa 16.242.800 pezetakoa da.

### Kultur Egunak ongi joan dira

Urriaren lehenengo asteburuko Joxe Landareneguraldiari buruzko solasaldia, Marsel Magoaren ikuskizuna eta Kukubiltxo Taldearen emanaldiak interesgarriak bilakatu dira. Gaiaren arabera, jendearen erantzuna ere polita izan da.

### Sareetako uso ehizak hastapen ona izan du

Eguraldia aski freskatu duelako edo, gehienetan baino uso gehiago etorri da urriaren lehen hamabortzaldian. Etorri eta harrapatu. Izan ere, hau idazterakoan, urriaren hamairua delarik, 60 dozena sareratu dituzte. Ez dut uste aspaldixko horrenbertzekorik egin denik. Ez dugu atzendu behar, ehiziko denboraldi osoan 63 dozena ingurua ez zutela gainditu, duela urte guti. Igazko ehizia ona izan bazen, 160 dozena, aurtengoa hobea izaten ahal da. Hobea izaten ahal da, orain bezalako eguraldiak iraunez gero, aurten oraindik ez baitu haizegoak bere aurpegia erakutsi, sareetarako hain aldrebesa dena.

ANA janaridenda
Bittiria, 41• ✆ 948637518
LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
✆ 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

ELENA ENGLISH
✓ Matrikulazio epea zabalik
✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
✓ Maila guztiak
Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

## IGANTZI

# Nekazariek Herrikoetxetik pasatu beharko dute aurtengo neguan

### Kultur Egunak abenduaren hasieran izanen dira

OSKAR TXOPERENA

Aurten nekazarien esplotazioei buruzko datu bilketa berria egin behar dute Herrikoetxean. Hilabete honetan hasiko dira nekazari guziei Herrikoetxera joateko deitzen, zenbait datu eskatzeko: Aziendak, makinaria, dauzkaten lurren azalera eta erabilera, produktuen komertzializazioa, etabar. Informazioa ematea nahitanahiezkoa omen da eta sekretupean gordeko da. Galdeketaren helburua orain dela 10 urte egindako zentsoarekin konparaketak egitea omen da.



**Kollins Clown taldearen emanaldia urriaren 31n**

97ko udazkenean izan genuen azkenekoz Kollins Clown taldea Igantzin -argazkia ordukoa da-. Urriaren 31ko goizean ere bertan izanen ditugu, bi ipuin antzezten, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen urteroko Udazkeneko Biraren barrenean. Argazkia: Oskar

**Ikastaroak**

Urria ikastaroak hasteko garaia izan ohi da urtero, ohikoa bihurtzen ari zaigun bezala eskulan ikastaroen antolaketa. Badute nonbait arrakasta, laugarren urtea baita jarraian antolatzen direla. Iaz bezala, bi taldetan banatu ditu Mª Puy irakasleak.

Zahar-etxean ere hasiak dira gimnasira joaten, irakasle berriarekin gainera. Oraindik hasi ez direnak bertze gimnasi ikastarokoak dira, nonbait ikastaroak ematen zituen Mikel Mendizabalek aurten ezin baitu eman.

**Kultur egunak**

Lotuxea dauka dagoeneko herriko Euskara Batzordeak aurtengo Kultur Egunen egutegia. Aldaketarik ez bada, abenduaren 4an hasiko dira eta 8ra bitartean iraunen dute. Aurtengo ekitaldiak hurrengoan aipatuko ditugu.

**Behar-Bidasoa**

Larunbatean ziren joatekoak Irunera herriko zenbait lagun Behar-Bidasoak zonalde guzian bildu dituen puskak prestatzera eta kontenedoretan sartzera. Arrakasta haundia izan du egindako azkeneko kanpainak eta uste baino aunitzez janari gehiago bildu da Angolara bidaltzeko. Herriko haurrak ere gonbidatuta zeuden ikustera puskak nola prestatzen diren bidaltzeko. Igantzin 300 kilo janari eta 300.000 pezeta inguru bildu dira.

ANTZUZELAI S.L.
Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
"Abujardadoa" "Zahar antzekoa" Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

FOTOKOPIAK txuri beltzean KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKUADERNAZIOAK
IRUDI
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
KULTUR ETXE AURREAN
BERA
Eztegara 26 Etxuineko-Behea 31780 BERA Tel-faxa: 948 63 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, erreketifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

TXIRULA
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

MOLDAKETAK KONPONKETAK
Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
RETOUCHERIE de Manuela ®
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
© 943 660 292 • IRUN

ALDO OSTATUA
LESAKA

## ARANTZA

# Laugarren Baserritarren Eguna izanen da Kultur Egunetako ekitaldirik aipagarriena

### Urriaren 29, 30 eta azaroaren 1ean burutuko dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Egitarau hau prestatu dute Arantzako Euskara Batzordeak eta Ekaitza elkarteak aurten Kultur Egunetarako.

Urriaren 29an, ortzirala, arratsaldeko 8etan, Zahar Txokoan, HIESa eta drogari buruzko solasaldia izanen da, arratseko 8etan.

Urriaren 30ean, larunbata, 5,30etan, Marsel magoaren emanaldia eskolako gimnasioan eta 8etan, Gasherbrum espedizioaren diapositiba emanaldia.

Azaroaren 1ean, astelehena, IV. Baserritarren Eguna eginen da. Goizeko 11etan hasiko da baserriko produktuen erakusketa pilotalekuan. Postua jarri nahi duenak, 10etarako bertan egon beharko du, baina lehendik izena eman behar die Juanita (948 634137) edo Gabinari (948 634126). Gero, eguerdiko 2etan eginen da herri bazkaria, Ekaitzan. Bazkaltzeko, Juanita edo Gabinari erran.



**Eskolako neska-mutikoek TTIPI-TTAPA bisitatu zuten**

Arantzako eskolako neska-mutikoek TTIPI-TTAPAren bulegoak bisitatu zituzten urriaren 1ean. Aldizkari eta telebistari buruzko galderak eta zalantzak uxatu ondotik, argazkirako prest azaldu ziren. Argazkian, Lehen Hezkuntzako taldetxoa ageri da.

Argazkia: Joxemanuel

#### Nekazaritza zentsoa

Eskatuko den informazioa, hau izanen da: aziendak, zenbat lur erabiltzen den belagietan, baratzetan edo arboladietan, erabiltzen den makinaria, langileen kopurua, produkzioaren komertzializazioa... Lan estadistikoa denez, emandako datuak sekretupean egonen dira eta informazioa ematea nahitaezkoa da.

Zentso honekin gaur egungo nekazaritzaren egoera ezagutu eta aurreko zentsoarekin konparatuz (azkenekoa orain dela hamar urte egin zen) zein aldaketa izan diren ikusi nahi da.

Estadistika Institutu Nazionala arduratzen da lan honetaz eta aurten Herriko Etxeko langileek eginen dute zentsoa. Hau dela eta, hilabete honetan hasiko dira telefonoz deitzen Herriko Etxera etortzeko.

#### Informatika ikastaroa

Jadanik abiatu da aurten ere informatika ikastaroa. Edozeinentzat zabalik dagoen ikastaro hau, joan den astean hastekotan zen eta eskolako jangelan bilduko dira astero.

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 · BERA



ALBERGEA JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA

Alberto RETEGI abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948 631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
✆ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA



DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia
Eztegara 19 • ✆ 948 63 02 40 • BERA

## ERREPIDEAK

# Zozaia-Doneztebe errepide berriak 2.904 milioiko aurrekontua du

### Oieregin eginen den tunelean hasiko dira lanak

TTIPI-TTAPA

Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak urri hasieran onartutako Foru Agindu baten bidez adjudikatu ditu Zozaia eta Doneztebe arteko errepide zati berria egiteko lanak. Horretarako hiru enpresek eginen duten aldi baterako elkartea izan da aukeratua: Azpiroz y Saralegi, Padenasa eta Cavosa. Enpresa elkarte honek 2.904 milioi pezetatan eginen ditu lanak, hasierako aurrekontua baino %5 gutiago.




**OIEREGIKO TUNELEAN HASIKO DA ERREPIDE BERRIA**

Errepide zati berriak 6.146 metroko luzera izanen du eta Oieregin eginen den kilometro erdiko tunelean hasiko da. Zuloaren barnean hiru metro terdiko bi karril izanen dira, 0'3 metroko tarte batekin banatuak eta 1'35 metroko bi bidebazter. Alde banatara, 0'75 metro zabalerako bi espaloi ere eginen dituzte.

Tuneletik aterata, Oieregiko lurretan igaroko da errepide berria, mendi magalera hurbilduz. Bidasoa erreka ehun metroko zubi egitura batekin pasatzen da, 20'300 eta 20'400 kilomteroen artean. Behin erreka igarota, gaur egungo N-121-A errepide nagusia 22'600kilometroan gurutzatzen du. Bertan eginen da Legasako lotura osoa, diamante itxurakoa. Errepide berria, zaharraren gainetik izanen da zati honetan. DoneztebeN ere lotura erdi bat eginen da, Irun-Doneztebe eta Doneztebe-Irun norabideetan. Hemen ere errepide berriaren azpitik egonen da zaharra.

### Leitza eta Doneztebe arteko errepidea ere moldatuko da

Leitza eta Doneztebe lotzen dituen NA-170 errepidean bi kilometro eta lau ehun metro hobetzeko eta zabaltzeko lanak 553,6 milioi pezetatan eginen dituzte horretarako espreski elkartu diren bi enpresek: Obras y preparación de terrenos SL eta Obras Subterráneas, SA.

Zehazki, 29. kilometrotik, 31'400 kilometroa bitarteko zatia moldatuko da. Errepideari bederatzi metroko zabalera emanen zaio, hiruna metro terdiko bi karrilekin eta metro terdiko bi bidebazterrekin.

Leitza eta Doneztebe arteko errepidearen moldaketen bosgarren zatia da hau eta desmonte ttiki batzuk, paretak eta zenbait egitura ere ginen dira.




Lizun
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA


J. RAMOS
*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*
✆ 948631342 BERA • ✆ 948637172 LESAKA



✆ 948631076 • BERA


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

CONSTRUCCIONES SALDIAS
ETXEGINTZA OROKORRA
Teilatu eta fatxada berritzetan espezializatuak
Pintura lanak eta gremio guziak
✆ 607 434397 • 689 701369 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

## DONEZTEBE

# Udal Polikiroldegia 108 milioitan eginen du Mariezkurrena enpresak

### Sei hilabetetan lanak akituko dituela hitz eman du

TTIPI-TTAPA

111.774.180 pezetako aurrekontua du Donezteben eginen den eskualdeko polikiroldegiak. Patxi Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektuek egin dute proiektua eta zortzi hilabeteko epea izanen da polikiroldegia akitzeko. Doneztebeko Udalak, lanak egiteko lehiaketa deialdia luzatu ondotik lau eskaintza jaso zituen, eta horien artean Mariezkurrena eraikuntza enpresarena izan da onena. Lanak sei hilabetetan eta 108 milioi pezetaren truke eginen dituela hitz eman du Mariezkurrenak.



**Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finala Donezteben**

Antolatzaileek espero baino jende gutixeago bildu bazen ere, giro ederra izan zen urriaren 10ean Doneztebeko eskolako pilotalekuan jokatutako Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finalean. Mindegiak uste baino lan gehiago eman zion Olasagastiri eta ikusleek ederki eskertu zioten. Arg: Aitor

Dirulaguntzei dagokienez, bi departamenduren babesa jasoko du Udalak, Miguel San Miguel alkateak dioenez. *«Hezkuntza Departamenduak, arratsaldeko 5akarte eskolak probextuko baitu instalazio hori eta Kirol Departamenduak ere bai. Bien artean, %50 inguru ordainduko dute eta bertze erdia Udalak jarriko du, bi urtez».*

Duela urte pare bat somatu zuten polikiroldegiaren beharra udalean. *«Gaur egun frontoia hagitz betea dago: Txaruta pilota elkartekoak, eskubaloiko taldeak, erremonte eskola, paleta eta futbito txapelketak... Polikiroldegi berria egitea pentsatu genuen eta aurten dirulaguntza izanen dela segurtatu digute Iruñetik».* 46 metro luzeeta 30 zabal izanen ditu eta barrenean futbito eta eskubaloian aritzeko kantxa bat, lau aldagela, epaileendako aldagela, komunak eta bertze zenbait gela izanen dira. 400 bat pertsonendako harmailak ere eginen dira. Lan hauek probextuz, zelai eder bat eta ehun bat autorendako aparkalekuak ere eginen dira polikiroldegi inguruan.

### Margarita Erdozain, udal liburutegiko arduraduna

Margarita Erdozain Azpilikueta izanen da udal liburutegiko arduraduna. Bere izendapena ahobatez onartu zuen epaimahaiak, bera izan baitzen punturik gehien lortu zuen hautagaia.

*Pertsonaia*

### *Mundu osoko 9 akordeolari onenen artean*

Iraila akabailan Ourensen burututako Munduko akordeolari txapelketan bederatzi lehendabizikoetan sailkatu zen Josu Juanena 19 urteko doneztebarra. Uztailean Espainiako txapeldun gelditu ondotik joan zen Juanena Ourensera, hamahiru herrialdetako akordeolariekin lehiatzera. «Joan den urtean baino hobekiago aritu naiz». Lehendabiziko fasean epaileek agindutako hiru pieza jo behar izan zituen. Hori pasatuz gero, finalerdian eta finalean, 20 eta 30 minutuko programa librean aritu ziren akordeolariak, berak nahi zituzten doinuak joz. Josuk akordeoiaz bizitzeko intentzioa du eta heldu den urteko munduko txapelketa prestatzen emanen du urte osoa.



Josu JUANENA



**BELARRA**
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



**AMEZTIA**
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA
MENGHINI AKORDEOIAK
Angel Manuel Belio
AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
DOMIÑENEA Etxea
San Andres Karrika, 40
NARBARTE
☏ 948 - 61 50 55
Deskontuak akordeoiak erosteraakoan

**ETXANDI TXOKO jatetxea**
Bazkari, afari eta ogasariak
ITUREN
Tel: 948 45 04 91

## MALERREKA

# Gas naturala etxez etxe hedatzeko lanak hasi dira Beintza auzoan

Sare osoa egitean herriko etxe guziek izanen dute gasa hartzeko modua

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaienera gas naturala sartzeko lanean ari dira Repsol-Butano enpresako langileak. Lehenik, Beintzako auzoan ari dira sarea osatzen eta hortik Labaienera eramanen dute. Beintzan 8,334 metro kubikoko biltegia eginen da. Auzo bakoitzean deposito bana eginen dute eta herriko berrogeita zazpi etxebizitzetara gasa sartzeko aukera eskainiko dute. Horretarako 1.410 metroko tuboa sartuko da. Hori bai, etxe bakoitzeko bizilagunek egin beharko dute eskaera, beraien etxean gasa sartzeko giltza eskuratzeko.

Lanen aurrekontua kasik lau milioi pezetakoa da (3.968.685 pezeta) eta urtebeteko epea izanen dute lana akitzeko. Gasaren sarea sartu bidenabarkoan, urhornidura lanak ere egiteko aprobetxatzen ari dira.



**Beintzan lanak akitu ondotik, Labaien aldera joanen dira gas naturala hedatzeko sarea eraikitzen ari direnak.** Artxibokoa

### Zubietako Errota

Axura enpresako Isabel Elizalde izanen da Zubietako errotako arduraduna urte honetan. Berea izan zen, Zubietako Udalaren ustez, aurkeztutako proposamenik onena.

## ITUREN

### Antzerki emanaldia izanen da azaroaren 1ean

IBAN ISASI

Azaroaren 1ean, Aurtizko pilotalekuan antzerkia, arratsaldeko 6etan. Nafarroako Gobernuak, Iturengo Udalarekin batera antolatutako Udazkeneko Biraren barnean, bi ipun antzeztuko dute: «*Edurnezuri*» eta «*Pulgarcito*».

### 1,200 kiloko onddoa

Joakin Aioroak urriaren 9an 1.200 gramoko onddoa aurkitu zuen. Argazkirik ez dugu lortu, berria jakin orduko puskatua baitzuen.

### Aurtizko bestak

Aurtizko bestak azaroaren 11tik 14ra ospatuko dira. Programa ez dago arrontean zehaztua, baina hurrengo alean emanen dugu horren berri.

## IKASTAROAK

# Haurren arropa puntuz josteko ikastaroa antolatu du Ezpelura emakume taldeak

Hori akituta etxean soldata baten truke aritzeko aukera eramen da

Malerrekako Ezpelura Emakume Elkarteak haurren arropa puntuz josteko ikastaroa antolatu du. Zonaldeko emakume guziei puntuz josten erakusteaz gain, ikastaroa akitzerakoan, nahi izanez gero, bakoitzak bere etxean soldata baten truke lanegiteko aukera emanen zaie. Ikastaroa 50 ordukoa izanen da, eta Malerrekako emakume elkarteak antolatzen badu ere, klaseak Oronoz-Mugairin emanen dira azaroan.

Izena emateko epea urriaren 25ean akituko da, horretarako 16.500 pezeta ordaindu behar izanen dira. Izena emateko 948 450643 (Ainhoa) edo 60643135 (Arantxa) telefonoetara deitu behar da.

### Azaroaren 9a arte apuntatzen ahal da informatika ikastaroetan

Bertzalde, Cederna-Garalur elkarteak antolatutako informatika iakstaroetan izena emateko epea azaroaren 9a arte luzatu da. Horretarako, 948 580 561 (Izaskun) edo 948 451 654 (Arantxa) telefonoetara deitu behar da. Doneztebeko San Miguel eskolan eta Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean emanen dira klaseak.

Cederna-Garalur erakundeak ikastaroaren prezioaren %75 ordaintzen duela kontuan hartuz, modu onean ateratzen dira ikastaroak, 3.000 eta 4.500 ptatan.

Windows 98 erabiliz gure ordenagailua antolatu, Internet-eko korreo elektronikoaren baliabide guziak ikasi, Word eta Excel programen aukera guzien berri jakin eta bertze zenbait kontu ikasten ahal da ikastaro hauetan.

# Azienda eta jende andana bilduko da udazkeneko ferian



Udazkeneko feriak ailegatu dira. San Lucas ondoko asteko ortziralean eta larunbatean izaten dira Elizondokoak, ohitura den bezala. Aurten, urriaren 29 eta 30ean. Zenbat azienda ikusiko diren jakin ez arren, seguru jende andana hurbilduko dela horren aitzakian eta inguruko jatetxeak bete eginen dira, urtero bezala. Neguko arropa saltzaileak, turroiak… Eguberritako usaia emanen diote eskualdeko lehendabiziko feria hauei.

Urtero bezala azienda, eta batez ere behi azienda, izanen da Elizondoko ferietako protagonista nagusia.

Arg.: ONDIKOL

**MALKORRA GOZOTEGIA**
*Urrekin egina • Turroi eta mazapanak*
*Etxean egindako gozoetan espezialduak*
Jaime Urrutia • © 948 580061 • **ELIZONDO**

**NAFARPRESS**
*LIBURUDENDA*
*Prentsa, aldizkariak, eskola eta bulego materiala*
Jaime Urrutia 43 • © 948 580902 • **ELIZONDO**

ALBAITARITZA S.A.

EUSKAL BASERRIAREN ZERBITZURA

**ALBAITARI ZERBITZUA**
**MERKATARITZA:** • Botika • Osagarri mineralak • Bildots eta aretxeendako esnea •
· Xaboi eta desinfektatzaileak • Materiala • Hazi • Nitrogenoa • MVE Garrafak ·

AITA DONOSTIA 7 • TFNOA: 948 580980 • FAXA: 948 452111 • ELIZONDO

# Behi esne kupoak erosi edo betirako uzteko kanpainak martxan daude



Joan den urteko kanpainan utzitako esne kupoekin fondo bat osatu zen eta orain atera da, kupo gehiago behar duten abeltzainek erosi ahal dezaten. Joan den urtean kupoa utzi zutenei indemnizazioa ordaindu zitzaien prezioan salduko da aurten. Nafarroa osorako 2000 bat Tonako esne kupoa izanen da guztira. Kupoa eskuratu nahi dutenek, urriaren 30a baino lehen eskatu behar dute. Erosteko prezioa, litorko 53'84 pezetakoa izanen da. Hori bai, erosten den kupoaz gainera, administrazioak portzentai bat debalde emanen du, erositakoaren %50a eta %75aren artean. Horregatik, kontu handia izan behar da kupo gehiago eskatzerakoan, Angel Garcia, Elizondo, Bera eta Lesakako Nekazaritza Bulegoetako arduradunak dioenez. «*Abeltzainak 20.000 litro gehiago behar baditu, 12 bat mila litro eskatzearekin aski izanen luke, gainerakoa administrazioak dohainik emanen baitio. Horren arabera egin behar dira kalkuluak*».

Informazio gehiago nahi izanezgero (kupoa eskatu ahal izateko baldintzak, gehienezko topeak, lehentasunak erabakitzeko puntuazioak, dokumentazioa...) eskualdeko Nekazaritza Bulegoetara joan behar da: Elizondon eta Donezteben egunero, Lesakan astearteetan eta Beran ortzegunetan.


ELIZALDE ESTANKOA
TABAKOA
OPARIAK eta ALDIZKARIAK
Jaime Urrutia • ✆ 948 452410 - ELIZONDO

ELIZETXE
Materiale elektrikoaren salmenta
Jaime Urrutia 8 · ELIZONDO · ✆ 948 581261 - Fax 948 452397




IPARLA KIROLAK
• Kirolak orokorki
• Ekipamenduak
Santiago 51
✆ 948 58 05 85
ELIZONDO

CIAVRRIZ
harategia · urdaitegia
Jaime Urrutia 26 · ELIZONDO
✆ 948 580 257

BAZTANDARRA KOOPERATIBA

Ferietan ere baserritarren zerbitzurat
Tel.: 948 453 310 - Faxa: 948 453 375
Ordoki Auzoa · ARIZKUN



## Esne kupoa betirako uzteko kanpaina

Aldi berean, esne kupoa uzteko kanpaina berri bat ere hasi da. Iaz bezala, aurten uzten diren kupoekin fondo bat osatuko da heldu den urterako. Esne kupoa betirako utzi nahi duenak abenduaren 1a baino lehen eskatu behar du. Indemnizazioei dagokienez, gaur egun duten kilo kupoaren arabera aldatuko da. Honela, 25.000 kilotik goitiko kupoa dutenendako kiloko 50 pezeta ordainduko da eta 25.000 kilotik beheitiko kupoa dutenendako, berriz, 60 pezeta kiloko.

Beraz, jakinaren gainean zaudete, esne kupoa haunditu nahi baduzu edo behin betirako uzteko asmoa baduzu, oraintxe da Nekazal Bulegoetara joateko tenorea.

Esne kupoa haunditu nahi izanez gero edo behin betirako uzteko asmoa izanez gero, dagoeneko martxan jarri dira bi kanpainak. Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetara joan behar da horretarako.

Arg.: ONDIKOL

Karrika Ostatua
Bisita gaitzazu ferietan!
Jaime Urrutia 11 ☎ 948 581 275 · ELIZONDO

Ander goxokiak
Urtebetetze poltsak
Piñatak...
Santiago 33 - ELIZONDO - ✆ 948 452294




BETIZU
ALBAITARITZA
Produktu zoosanitarioak
Pentsuak
Aziendendako tresneria
✆ 948 580 230 - Santiago 62 - ELIZONDO

DATACOM
Informática
INFORMATIKA KLASEAK EMATEN DITUGU
• Sistema informatikoen muntaia, salmenta eta moldaketa
• Industri analisia eta mantenimendua
• Asistentzia teknikorako zerbitzua
• Sare lokalak
• Jendearendako eta enpresendako formazio ikastaroak
Giltxaurdi 17 • ELIZONDO
✆ 948 580 653 - 649 561 401

SUMINISTROS YANCI
• ITURGINTZA INSTALAZIOAK
• GAS ETA GASOIL BEROGAILUAK
• ERREGAILUEK MOLDAKETA ETA MANTENIMENDUA
• REPSOL-BUTANO S.A.ren kolaboratzailea
(Empresa mantenedora)
Zaldubia Pol. 2 - IRURITA • 948 58 01 09

# Artzainendako ikastaroa eta mintegia burutu dira Baztanen EHNEren eskutik

Bertze urteetan esne behi edo behi gorri esplotazioen gestioari buruzko ikastaroak egin dituzten bezalaxe, aurten ardiaren sektorea eta artzainen problematika aztertu dituen ikastaroa burutu du EHNEk aste honetan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Lourdes Indaburu, EHNEko kidearen erranetan, *«ardi esplotazioek behi esplotazioek baino hobekiago eutsi diote nekazaritza iraunkorrari. Hau da, ardiei zuzendutako baserriek betiko produkzio moduari eutsi diote, bertako arrazarekin eta bertako errekurtsoak probextuz»*. Halere, ikastaro honen beharra azpimarkatu du Indaburuk. *«Behar beharrezkoa da ikastea, baserrian erabakiak hartzeko. Adibidez, auniztan saldu nahi diguten pentsua ez da gure aziendari gehien komeni zaiona. Hori jakiteko nahitaezkoak dira ikastaroak»*.

Horretaz gain, ardiak zer behar duen esne gehiago eta hobea emateko kostu guttiagorekin, etxeko bazka nola hobetu eta bertze hainbat kontu praktiko ikasteko aukera izan dute inguru honetako artzainek.

## Europa osoko artzainak Lekarozko mintegian

Bertzalde, Lekarozen Europako artzain multzo bat bildu da asteburu honetan, esperientziak elkartrukatu eta batzuk bertzeen berri izateko asmoarekin. EHNE eta Confederation Paysanne Europeene (CPE) sindikatuek antolatua. Artzaintza eta esne produkzio eredu ezberdinen informazioa lehen eskutik jasotzeko modua izanen da topaketa honetan, Lurdes Indaburuk dioenez. *«Frantziako Aveyron aldean, Roquefort gasna egiten den lekuan alegia, izugarrizko ardi-esne produkzioa egiten dute. Artzainak euren artean elkartuak daude eta dinamika sindikala haundia dute. Euskal Herriko Iparraldean ere gauza bera gertatzen zaigu: lan aunitz egin dute artzaintzan eta esperientzia haundia dute. Eta zer erranik ez Espainiako Gaztela aldean: ardi esne aunitz produzitzen da eta gasna ere egitenda. Hiru leku hauek eta Euskal Herriko hegoaldean dugun esperientzia hartuz, Europa osoko artzainak biltzeko ideia sortu zen»*.

Beraien arazoak izan dituzte solasgai Lekarozen bildutako Europako artzainek: esne produkzioa, gasna, prezioa eta

GOIZ-ALDE OSTATUA
Aukera zabala
platera, bokata eta pintxotan
Postrerako
Josepren kanutillak
Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO
✆ 948 581 334

Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia 35 - ✆ 948 58 01 28
ELIZONDO

VIDEO CLUB BAZTAN
Feria onak pasa itzazue
Jaime Urrutia 38
ELIZONDO



kalidadea, nola saltzen duten, nola antolatuak dauden…

Esnearen inguruan, Aveyrongo artzainen esperientzia izan da topaketa hauen ardatza: *«Eurek duten Interprofesionalari buruz solastu dute, zer prezio dituzten eta nola lortu egin duten antolatzea».*

*Segitzen du*

Ardi sektoreak Europan dituen arazoak aztertu ziren Lekarozko mintegian.

Artxibokoa

Iris Floristeria

- Landare zentroak
- Krisantemoak, azaleak, ziklamenak...
- Lore xortak eta landareak loretan kanposanturako



DOMISAINDURAKO ESKEINTZA BEREZIA

Jaime Urrutia 21 • © 948 58 10 53 • ELIZONDO

SANSIÑENA GARAGEA

Tfnoa: 948 580 406 • ELIZONDO

CITRÖEN Zerbitzu Ofiziala
- *Mekanika tailerra*
- *Kotxe konponketa*
- *Bigarren eskuko kotxeak*

AGRIA Zerbitzu Ofiziala
- *Agria eta Fiat'NewHolland traktoreak*
- *Erabilitako nekazal tresneria*

VIRGILIO OINETAKOAK

VIRGILIO OINETAKOAK

1922an fundatutako etxea
© 948 58 02 09 - 948 58 02 79
Santiago 32 • ELIZONDO
*Larunbata egun osoan irekita!*





Inguru honetan Erronkari eta Idiazabalgo eta Iparraldean Usoa-Irati Jatorri Izendapenak ditugunez, gasnak ere garrantzi berezia izan du solasaldietan. EHNE sindikatuak bere kezka azaldu du, izendapen hauek etorkizunean izaten ahal duten bilakaeraren inguruan. Bertze herrialdeen dinamika ikasi eta elkarlana landu dute mintegi honetan.

Elkarlana izan da, beraz, mintegi honen ardatz nagusia: *«Ezin dugu alde batean erabaki batzuk hartu eta bertzean kontrakoa egin. Horren adibide garbia dugu gaur eguneko errealitatea: Han esnea soberan dutenez, Aveyronetik esnea ekartzen ari dira Nafarroara, Enaquesaren bitartez, eta horrek, gure merkatua hondatu egiten du. Gauza hauek ez gertatzeko solastu dugu, gure artzaintza mantentzeko eta hobetzeko eta artzainek hobeki bizitzeko».*

Izan ere, Aveyroneko artzainek ere badakite beraien esnearen zati bat honat eta Gaztela aldera ailegatzen dela, prezio arras apaletan. *«Beraiek horren kontra daude, ez dute hori onartzen. Esnea behar den haina produzitu behar dela uste dute, eszedenterik sortu gabe. Aukera haundiak dituzte eta beraiek erraten dutenez, nahi izanez gero Europa osoa bete dezakete beraien esnearekin. Baina ez dute hori nahi, horrek bertze artzain batzuren desagerpena ekarriko bailuke».*

## Nafarroako Bildotsa Labela

Bertze afera bildotsarena da. *«Bildotsa aunitz produzitzen duten zonaldeak badira, bainagero arazoak dituzte saltzeko. Galdera hor sortzen da: Zer egin bildotsarekin? Iparraldeko Euskal Laborarien Biltzarreko (ELB) ordezkariek beraien errealitateaz eta sortu duten labelaz solastu zuten».*

Nafarroako Bildotsa izendapena edo labelaren sorreraren inguruko gorabeherak ere aipatu nahi izan ditu

Urte osorako baratzuria erosten duenik bada Elizondoko ferietan.

Arg.: ONDIKOL


**FERRETERIA BAZTAN**
Pintura • Aroztegiko gauzak
Kristalak • Tresneria • Opariak
Jaime Urrutia 20 • © 948 580423 • **ELIZONDO**

**Bidegain Arraindegia**
**Feria onak pasa**
Jaime Urrutia 22 • ☎ 948 58 04 98 - **ELIZONDO**

**Natura Etxea**
- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Ilearen tratamenduak

**BELARDENDA ETA DIETETIKA**
Ongi pasa ferietan!!
Iturri Ederra • Tfnoa. 948 58 02 03 • **31700 ELIZONDO**




# Euskararen Berriak

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaren argitalpena
14. zenbakia • 1999-X-21

## Udalekuak

Euskara zerbitzuak urtero antolatzen ditu udalekuak Areso, Arano, Goizueta eta Leitzako umeentzako. Aurten ere antolatu ditugu, baina berrikuntza batekin: Nafarroako gainerako euskara zerbitzu guztiekin batera antolatu ditugu, BKZ eta Artelatzen enpresekin koordinatuta. Aurtengoan 20 ume eta gaztetxo joan dira gure herriotatik, 16 Goizuetatik, 1 Aranotik eta 3 Aresotik. 20 horietatik 13 Iparraldeko Bidarraira joan ziren eta beste 7ak Gipuzkoako Alkizara. Leitzatik, aldiz, ez da inor animatu. Saharako umeek etorri behar zutelakoan bertako umeak herrian gelditzea erabaki zutela pentsa dezakegu. Nolanahi ere, udalekuen balorazioa oso positiboa da.

## UEMAren jardunaldiak

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urriaren 16an egin ditu 1999ko jardunaldiak. Leitzan egin da bilkura, eta bertan hainbat gai zatertu da: udalerri euskaldunek eta UEMAk euskararentzat duten garrantzia, UEMAren sorrera eta bilakaera, Euskara Biziberritzeko plangintza, Osasun Zerbitzuetan eta Justizian euskararen egoera, eta baita beste herrialde batzuetako esperientziak ere. Arratsaldean, zuzendaritza batzordea eta lehendakaria aukeratzeko bilera egin zuten udal ordezkariek.

## Euskara zinegotzi berriak

Ekainaren 13an udalak osatzeko hauteskundeak egin ziren. Udalak berritu direnez, euskararen ardura hartu duten zinegotziak ere aldatu dira. Hauetxek ditugu hurrengo lau urteotan udalaren barruan gai honetaz arduratuko direnak: Areson, Joxepa Onsalo; Goizuetan Ibon Elizegi eta Dani Narbarte; Leitzan Maite Sarobe, Arantxa Sagastibeltza eta Maria Flora Mitxelena. Aranon ez da Udala berritu, ez baitzen inor aurkeztu. Leitza-Larraun-Ultzamaldeko Mankomunitateko lehendakaria, berriz, Tomas Azpiroz izanen da.





## "Justizia" administrazioa eta euskara

Euskaldunok euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko eskubidea dugu eta horrelaxe aldarrikatzen dugu. Hala ere, badira oraindik ere gure eskubideak ukatu nahi dituztenak eta zoritxarrez horietako batzuk "Justizia" administrazioan daude, eta nolabaiteko boterea ere badute. Esaterako, Usurbil eta Aizarnazabalgo udalen aurkako erabakiak hartu dituzten epaileak. Bi herri hauek gureak bezelakoxeak dira: erabat euskaldunak. Gainera, Leitza eta Goizueta bezala, UEMAn sartuta daude. Azken hilabeteotan ezagutarazi diren erabakiek udalak euskaraz funtzionatzea galerazi nahi dute eta Epaitegietako agiriak euskaraz jasotzeko eskubidea ukatzen dute, bigarrenaren kasuan gainera burla nabarmena eginez. Ikusten denez, euskararen berrien artean oraindik jarraitu beharko dugu gure hizkuntzari egiten zaizkion gisa honetako erasoak salatzen.

# Gure herriotan aditu, ikusi eta irakurtzen ditugun euskarazko komunikabideak

Gure eguneroko bizitzan komunikabideek pisu handia dutela ezin uka. Nork ez ditu egunero ordu batzuk ematen irratia aditzen, egunkaria irakurtzen edo telebista ikusten? Ikerketek diotenez bataz beste egunero 3 ordu inguru pasatzen omen ditugu telebistaren aurrean. Beraz, zalantzarik gabe garrantzi handiko esparrua da gizartearentzat, eta baita hizkuntzarentzat ere. Lasai, indartsu eta sasoian bizi diren hizkuntza guztiek eginahalak egin dituzte komunikabideen mundu hori bereganatzeko. Espainol batek aisa izanen du bere beharra, gogoa edo zaletasuna asetzeko behar adina aukera komunikabide mota ezberdinetan. Baita alemanak ere, edo frantsesak, edo italiarrak,... Espainolez, esaterako, eta gure herri txikiotatik atera gabe, dozenaka aldizkari eros edo irakur dezakegu, edozein gairen ingurukoak: kirola, literatura, sexua, mendia, natura, osasuna eta elikadura, informatika, umorea, motorra, zientzia, informazio orokorra, bitxikeriak, animaliak, bidaiak, politika, brikolajea, dekorazioa, prentsa arroxa...

Eta euskaraz? Arestian aipatutako 18 gai horietatik, adibidez, euskaraz 4 aurki ditzakegu: literatura, zientzia, informazio orokorra eta politika. Informazio orokorrekoa kenduta, besteak maiztasun gutxikoak dira gainera. Telebistari erreparatuz, beste horrenbeste. Erderazko kateen uholdearen ondoan, euskarazko kate bakarra. Bi adibide besterik ez dira, baina zeharo argigarriak.



**Karrape Irratia Leitzan entzuten ahal da (107.8 FM). Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan ederki entzuten dira. Bertze irrati batzuk entzuteko zailtasun gehiago daude.**

Gure txikitasunean, ezin izanen dugu espainolak duen eskaintza bera desiratu. Ez da hori kontua eta ez dago homologazio txoro bat itsu-itsuan bilatu beharrik. Baina euskaldunon beharrak eta nahiak hobeki asetuko dituen eskaintza beharko litzateke, beti erderara jo beharrik izan gabe.

Panorama ilun honetan argi izpitxoak ere antzeman ditzakegu, herritarron hurbil-hurbileko komunikabide lokaletan adibidez: euskara zerbitzuaren gehigarri honen euskarri den Ttipi-Ttapa eta Karrape irratia, esaterako. Euskararentzat lorpen handia da herriotako informazio eta berri zehatzak eta hurbilak hizkuntza honetan ematea. Ez da nahikoa, baina behar-beharrezkoa da.

## Euskaraz ikus, entzun eta irakur daitekeena

Komunikabideetako erdararen itsaso horretan euskararen irlak zein diren erakusten saiatuko gara, nolabaiteko mapa honekin edozein nabigatzailek lurra errazago aurki dezan. Beraz, jarraian azalduko ditugu Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko herritarrek, eskualdetik atera gabe, euskaraz ikusi, entzun edo ira-

kur ditzaketen komunikabideak:

**Telebista:**
ETB 1 ikus daiteke lau herriotan, nahiz eta txokoren batean arazoak izan.

**Irratiak:**
Euskadi Irratia eta Euskadi gaztea lau herriotan entzun daitezke. Karrape Irratia (107.8 FM) Leitzan. Hauetaz gainera beste irrati batzuk ere entzun daitezke, nahiz eta agian etxe guztietara ez iritsi. Guk dakigula behintzat Herri Irratia (98.8 FM) Areson entzun daiteke, eta Segura (90.0 FM), Loiola (100.0? FM) eta Arrate (87.9 FM) irratiak Leitzan.

**Egunkariak:**
Goizuetan eta Leitzan Euskaldunon egunkaria eros daiteke.

**Aldizkariak:**
Ttipi-Ttapa hamabostekaria (bertako informazioa) lau herriotan zabaltzen da; Argia astekaria (informazio orokorra) Leitzan eta Goizuetan aurkitu daiteke; Hurrengoak soilik Leitzan eskuratu ahal izanen ditugu: Elhuyar hilabetekaria (zientzia eta dibulgazioa), Ostiela hiruhilabetekaria (literatura, kritika soziala), Ezpala (politika), Bertsolari (bertsogintza eta bertsozaletasuna), HIK HASI aldizkaria (hezkuntzaren ingurukoa), eta agian ihes egin digun bateren bat.

**Harpidetza bidezko aldizkariak:**
Badira euskarazko aldizkari gehiago, normalean espezializatuak, baina harpidetza bidez jaso behar direnak, ez baitira gure eskualdean saltzen: BAT aldizkaria (soziolinguistika), JAKIN aldizkaria (euskal kultura, euskara... Leitzako liburutegian jasotzen da), AEKren ELE aldizkaria, UZTARO aldizkaria (ikasketa unibertsitarioen ingurukoa), SENEZ (itzulpengintza), MAIATZ (literatura),...





Beraz, eta zoritxarrez, gure herriotan euskarazko komunikabideek ematen diguten aukera erdarazkoena baino askozaz ere murritzagoa da. Hala ere, zerbait badugula ere esan behar da, eta euskaraz bizi nahi dugunok aukera horiek baliatzen ikasi behar dugula, gutxienez dauzkagun eskaintzak eta produktuak erabiliz.

**ETB-1 ikus daiteke lau herriotan, nahiz eta txokoren batean arazoak izan. Bertan ere sortu dira telebista eta aldizkariak.**

# Euskararen kale neurketa

Gure herrietako kaleetan zenbat euskara eta zenbat erdera egiten den urtero neurtzen dugu, gure errealitatea hobeki ezagutzeko asmoarekin. Honatx azken urteotako neurketen emaitzak, denok ezagutu ditzagun eta nahi duenak hausnarketarako erabil ditzan. Oroitu dezagun, soil-soilik kalean egiten den euskararen erabilera neurtzen dugula. Herri oso euskaldunak dira hauek, zalantzarik gabe, baina erderak ere sarbidea duela ezin uka, Leitzako kasuan batez ere.




## LEITZAko datuak

| | HAURRAK | | GAZTEAK | | HELDUAK | | ZAHARRAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz |
| 1992 | % 92 | % 8 | % 65 | % 35 | % 57 | % 43 | % 67 | % 33 | % 68 | % 32 |
| 1993 | % 85 | % 15 | % 52 | % 48 | % 47 | % 53 | % 80 | % 20 | % 57 | % 43 |
| 1994 | % 76 | % 24 | % 44 | % 56 | % 56 | % 44 | % 100 | % 0 | % 62 | % 38 |
| 1995 | % 90 | % 10 | % 48 | % 52 | % 54 | % 46 | % 74 | % 26 | % 65 | % 35 |
| 1996 | % 95 | % 5 | % 59 | % 41 | % 53 | % 47 | % 89 | % 11 | % 67 | % 33 |
| 1997 | % 94 | % 6 | % 95 | % 5 | % 54 | % 46 | % 67 | % 33 | % 76 | % 24 |
| 1998 | % 96 | % 4 | % 74 | % 26 | % 58 | % 42 | % 86 | % 14 | % 76 | % 24 |
| 1999 | % 92 | % 8 | % 77 | % 23 | % 57 | % 43 | % 87 | % 13 | % 72 | % 28 |

## GOIZUETAko datuak

| | HAURRAK | | GAZTEAK | | HELDUAK | | ZAHARRAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz | Euskaraz | Erderaz |
| 1991 | %100 | % 0 | % 88 | % 12 | % 93 | % 7 | %100 | % 0 | % 94 | % 6 |
| 1993 | % 99 | % 1 | % 99 | % 1 | % 88 | % 12 | % 97 | % 3 | % 95 | % 5 |
| 1995 | % 90 | % 10 | % 74 | % 26 | % 86 | % 14 | % 88 | % 12 | % 84 | % 16 |

## Marmari euskara taldea

Aurtengo uztail-abuztuan Leitzan ibili direnek gogoratuko dute seguraski izen hau. Leitzako 10 gazteren argazkiak testurik gabeko kartel baten bildu zituen taldea da Marmari. (kontuz, argazkikoak ez dira Marmari taldeko partaideak, kartelarekin laguntzeko prest aurkitu genituen 10 gazte baizik). Kartel horren helburua jakinmina sortzea izan zen, bigarren kartelean esaten zena mundu guztiak irakur zezan, eta gazte hauen mezua jendearengana iritsi zedin. Neurri handi batean lortu zela uste dugu. Jakinmina sortzearena bai, beti ere.

Kartel hau, pestetan saldu den kamiseta, eta zabaldu den pegatina izan dira, beraz, talde berri honen aurkezpenerako ekintzak. Baina bere lehendabiziko urratsak zenbait hilabete lehenago eman zituen, taldea osatzeko garaian, eta aurrerantzean ere lanean jarraituko du gazteen arteko euskararen erabilera eta aldeko jarrerak indartzeko ahaleginean. Leitza herri oso euskalduna dela badakigu, baina gazteen artean erdera franko erabiltzen dela ere bai. Horrek bultzatu gaitu talde hau sortzera, lan handiagoa eta hobea eginen dugulakoan.

Marmari euskara talde bat da, gazteek osatutako euskara taldea. Euskara bultzatu eta lanean laguntzeko prest dagoen edozeinentzat irekia, ideia eta proposamen berriak eta ausartak jasotzeko prest dagoena. Taldeak baditu lanerako ideia batzuk, baina polita litzateke aurrerantzean eginen den lana jende eta ekimen berriekin osatzea. Beraz, ateak irekita daude nahi duenarentzat.



Ardi bat edo beste ikusten bada ere, behi aziendak izaten dira Elizondoko ferietako protagonistak.

Arg.: ONDIKOL

Lurdes Indaburu EHNEko kideak. *«Aspalditik datorren kontua da, Nafarroako Bildotsa Labelarena. Iparraldean badute horrelako zerbait, baita Euskal Komunitate Autonomoan ere. Nafarroa hortik aparte gelditzen zen eta, lehen aldiz, Nafarroako Gobernuak labela sortzeko pausu hori eman nahi izan zuen. Ez zen hori gauzatu, baina Nafarroarako izendapen edo label berezi bat sortu da. Hori egun hauetan ixten ari da, araudia prest dago eta laister hasiko da funtzionatzen. Honelako tresnak bertako produkzioa babesteko beharrezkoak dira».*

## Esnearen prezioa

Kanpaina laster hasiko dela eta, esnearen prezioa finkatzeko tenorea ere abudo ailegatuko da. Azkeneko urteetan, ordaintzeko sistema aldatu zenetik prezio hori mantendu egin da Indabururen erranetan. *«Kalitatezko primak eta deskontuak sartu zituzten, proteina eta grasak kontuan hartuta. Badirudi bakterologiaren prima eta deskontuak sartu nahi dituzte. Aurten ikusi egin behar da zer gertatuko den, baina ez da gauza aunitz aldatuko. Momentuz gasnategiek esnea nahi dute eta EHNEren helburua ahalik eta preziorik onena lortzea da, gehien bat artzainek bizitzeko behar dutelakoz. Ez du ematen kanpaina nahasia izanen denik, baina prezioetaz ez dakigu deus ere oraindik».*

Pedro GARMENDIA
Zerbitzu Estazioa
✆ 948 580 309 • ELIZONDO

• Gasolina eta Gasoila
• Garbiketa presioan
• Garbiketa automatikoa
• Olio eta lubrikatzaile salmenta

EHNE
Baserritarren sindikatua
Zerbitzurik onenak baserritarrentzat:
✓ Aseguru merkeak baldintza hoberenetan
✓ Informazioz beteriko aldizkaria hamabostero zure etxean
✓ Abokatu zerbitzua
✓ Fiskalitatea, laguntzak, tramitazioak...
Laguntza zuzena eta pertsonalizatua
Elizondo • ✆ 948 581302
Iruña • ✆ 948 254841
Lodosa • ✆ 948 694242



SUPER-BAZTAN
GRUPO ALIMENTACION DIA %
Feriak ongi pasa itzazue!
Santiago 40 • ✆ 948 580453 • ELIZONDO

# Urtetik urtera ardi gutiago jezten da

*Latxa ardiek duten berezko aberastasuna, esnea, gero eta gutxiago aprobetxatzen da*




Halaxe diote datuek. Urtetik urtera ardi gutiago jezten da baserrietan. Egiada osotara dagoen ardi kantidadea ere urritzen ari dela –Baztango datuak soilik hartzen baditugu, mila buru baino gehiago galdu dira urte bakar batean–, bainan proportzioan, oraindik gehiago ari da jausten jezten diren ardien kantidadea.

Baztanen, konparazio batera, orain dela bi urte 10 arditik 7 jezten ziren, eta iaz, 10 arditik 6 bertzerik ez. Eta zentzu horretan ez da atzendu behar Latxa ardiak, haragitarako baino, esnea emateko direla egokiagoak.

## Latxa ardiaren berezko aberastasuna gutiago probexten da

Datu horien arabera, ardiak dituzten baserrietan gero eta gutiago aprobetxatzen da Latxa ardiek berezkoa duten aberastasuna: esnea. Horren gibelean, seguraski, arrazoi desberdinak egonen dira, eta denen gainean bada bat aski potoloa: gure herrietan, Euskal Herriko bertze tokiekin konparatuz, apenas dugu artzain eta arditegi profesionalik.

Zentzu horretan, gure inguruan ardiak baserriaren osagarri direla iduri du, inportanteagoa den bertze aktibidade baten osagarri, alegia. Edozein gisara, artaldeen jabeak ere zertxobait murriztu ziren Baztanen duela bi urtetik gan den urtera.

ZUNZARREN
ARTEKARITZA
Aseguruak, Autoen Matrikulazioak, Gida Baimenen Berritzeak eta Garraiolariendako Ikastaroak
BIDAI AGENTZIA
AUTO-ESKOLA
✆ 948 45 22 93 • AMAIUR GAZTELUA 2 • ELIZONDO

CRIS ileapaindegia
Ongi pasa ferietan!
Giltxaurdi 16 • ✆ 948 580025 • ELIZONDO

ferretería Quevedo
• Elektrizitatea • Zerraildegia • Erremintak • Joareak • Haziak •
Babesa eta edertasuna guziaren gainetik




Pinturas Procolor
Santiago 21 eta 31 • ✆ 948 580234 • Faxa: 948 581210 • ELIZONDO

UAGN
UNION DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE NAVARRA
U.A.G.N.
Santiago 30, behea
ELIZONDO
✆ 948 580 627

ILARGI OSTATUA
Gaueko martxa eta giro ona
Jaime Urrutia 29 • ELIZONDO




**La Asturiana**
Ostatua • Jatetxea
• pintxoak • bokadiloak •
• gosariak • plater konbinatuak •
Menua edo karta
Feria onak pasa!
Santiago 51 • © 948 58 04 63 • ELIZONDO

**RETEGI GOXOTEGIA**
Etxean egindako gozoki klase guziak:
• FERIETAKO TURROIAK
• Euskal Pastela eta pastak
• Txokolatea urrakin egina
• Txokolatea almendrekin egina
FERIA ZORIONTSUAK IZAN
Santiago 43 • © 948 452186 • ELIZONDO

**ZUBIARTEA OSTATUA**
Ogitartekoak
Platerak
Bazkariak
© 948 453 052
Ordoki auzoa
ARIZKUN

Hamar urte baino gehiago zure zerbitzuan
**Zergalan Asesoria, S.L.**
Akullegi, 3 - 2.A
© 948 580 335
ELIZONDO
**Ordutegia:** Astelehenetik Ortziralera, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.
- Auditoriak
- Zerga Aholkularitza
  - Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...)
  - Elkarte gaineko Zerga
- Ekonomia Aholkularitza
  - Bideragarritasun ikerketak
  - Koste ikerketak
- Kontabilitateak
- Nominak, Aseguro Sozialak
- BEZ (IVA)

**JULI**
ostatu-jatetxea
Ferietako menu berezia
© 948 580 288
Giltxaurdi 4
ELIZONDO


BAZTAN • MALERREKA • BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA
MEKANIKA
ELEKTRIZITATEA
GASEN AZTERTZAILEA
ITVrako PRESTAKUNTZA
DIREKZIOAREN ZUZENKETA
ORDENADORE BIDEZ
SEAT TOLEDO
SIGNUM
TOLEDO
Tailerrak
Elizondoko
sarreran
Telefonoa:
948 58 02 25
SEAT


Almaco
Baztan
ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK
✆ 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO
⇩ Zeramikak
⇩ Sukaldeak
⇩ Velux-ak
⇩ Erremintak
BELLOTA


Betiko P.V.C.
Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59
4 arrazoi on PVC jartzeko
Kalefakzioan % 35a ahorratzen duzu
ISOLAMENDUA
Ez du pintura beharrik
MANTENU ERREXA
Ur eta haizeaz babesteko, baita ere soinuetatik
HERMETIKOTASUNA
Denborak ez du aldarazten
IRAUNKORTASUNA
Etxe berrietan eta zaharretan. Edozein itxiera, kaleria, leiho, atari...
Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe
BETIKOn kolore ugari ditugu, baita egur koloreak ere (haritza, kaoba, pinua...). Edozein etxe estilora egokitzen direnak.
deceuninck
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu


RENAULT
Kontzesionarioa
PEDRO GARMENDIA, S.A.
FRANTZIARAKO ERREP.
TELEFONOAK:
94858 04 31 - 948 58 04 36
FAX: (948) 58 09 73
ELIZONDO
Nuevo Scénic
AUTOZERBITZU
ESTAZIOA
PEDRO GARMENDIA, S.A.
• Gasolina • Gasoil • Super • Karburantea • Engraseak • Garbiketak • Olioa • Grasa • Neumatikoak • Akzesorioak •
Tfnoa: 58 03 09 - ELIZONDO

# BAZTAN

## ALTZARIAK

zurgindegia

121 errepide nazionala, 54 km.
Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA





- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, Luis Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



SAME

DEUTZ FAHR

# AURRE-KANPAINAN PREZIO BEREZIAK

Makinak aurtengo prezioan erosi eta heldu den urtean ordaindu



Ikusi eta informa zaitez, konpromezurik gabe:

AROZ-BERRI, S.A.
121-B errep., 54. km • IRURITA
Tfnoak: 948-581021-948 580258

Nafarroa eta Gipuzkoarako banatzailea

# TALLERES SANTESTEBAN, S.A.

AXA SEGUROS

**Gaia:**

**Gidatzeko karneta kentzen badizute**

**Gizon honeri gidatzeko baimena kendu eta ezin du lanera joan**

Halere, zoriontsu bizi da. Bera bezala, zu ere zoriontsu izan zintezke. Izan ere gidari honek zuhur jokatu zuen eta **RETICAR** *10* poliza kontratatu zuen, eta orain egoerari aurre egiteko nahiko diru jasotzen du hilero.

**RETICAR** *10* aseguruarekin
- ✓ Lanera joateko autoa hartu ezin baduzu taxia har dezakezu.
- ✓ Ibilgailua zure lan tresna baldin bada, oporrak har ditzakezu.
- ✓ Edo txoferra kontratatu, nahiago baduzu.




**RETICAR** *10* karneta kentzen dizutenerako AXA aseguru konpainiak zure esku jartzen duen asegurua da. Trafikoko arauren bat hausteko gero eta aukera haundiagoa da. **RETICAR** *10*-arekin hilero **250.000 pezeta** jaso dezakezu, zure neurriko gastua eginez.

Zuhur jokatzeaz gain **RETICAR** *10* kontrata ezazu

**Adibidea:**

| | Hileko kapitala | Urteko ordainsaria |
|---|---|---|
| Norbere asegurua | 100.000 pta. | 8.967 pta |
| Matrikula baten edozein erabiltzaileri | 100.000 pta. | 11.204 pta. |

AXA SEGUROS

## Aseguru klase guztiak

- Ibilgailuendako asegurua
- Etxebizitzako asegurua
- Arrantza eta ehizarako asegurua
- Komertziorako asegurua
- Bizitza Asegurua

RENAULT

## Agentzia

**Talleres Santesteban, S.A.**
Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tel: 948 450282 - 948 450597

- Aukerako Furgoneta eta autoen salerosketa
- Mekanika, txapa eta pintura konponketak
- Auto eta furgonetendako erremolkeen erakusketa
- Grua Zerbitzua



## DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Tel.: 948 451679
Faxa: 948 450857

- Gasolinera zerbitzua
- Presio bidezko garbiketa
- Barnealdeko garbiketa
- Auto-garbitzaile automatikoa

## ☞ GOIZUETA

# Eztia ere hoberena Goizuetakoa

J.R. Jimenezena aurrena Donostialdeko lehiaketan



Jose Ramon Jimenez, bere erlauntzak erakusten. Diario de Navarra

ESTEBAN AROZENA

Hernanin egin berria den Donostialdeko ezti lehiaketarako gonbidapena luzatu zitzaienean goizuetarrei, produktu ona aurkeztuko zutenaren segurantzia izanen zuten antolatzaileek. Ez zuten oker haundirik izan, Jose Ramon Jimenezenak eskuratu baitzuen lehenengo saria –garaikurra eta 25.000 pezeta– eta Ontxariko suhia den Jexux Mari Oiarbidek hirugarrena –15.000 pezeta–.

Jimenezek esan zigunez, *«hemengo loreek (ainarrarena, akaziarena, gaztainarena...) nektarra gutxi dute, baina kalitate ikaragarria, beraz, eztia ona izatearena ez da erlezainen meritua, naturarena baizik»*.

Sei leku ezberdinetan banatutadauzka Jose Ramonek bere 60 erlauntzak, 80 milioi erle gutxi gora behera. Urtean 400 kilo inguru ezti produzitzen omen ditu, kilo bakoitza 1.100 pezetan salduz.

Pinuaren izurritearen kontra burutzen ari diren fumigazio kanpainak asko kezkatzen du azken 40 urte hauetan herrian bizi den tuterar hau, eta hemengo erle guziak hilko ote direnaren beldur da. Ez al da behintzat horrelakorik gertatuko!



### Nagore Gabellanes Herriko Etxean ezkondu zen

Anatxuriko Nagore Gabellanes (belar gaineko hockeyan urrezko domina 1992ko Joku Olinpikoetan eta hainbat liga Real Sociedad taldearekin) Goizuetako Udaletxean ezkondu zen, argazkian sinatzen agertzen den Joxe Mari Arrarasekin. Nagoreren aurrean, zeremonia zuzendu zuen alkatea.

## ☞ ARESO

# Kaldeosoroko zubia zabalduko dute

Orain oinezkoak bakarrik pasatzen ahal dira

JUANA Mª SAIZAR

Kaldeosoroko zubia berritzeko lanak egiten ari dira. Zubi honen azpitik Matxain erreka pasatzen da. Zubi gainetik jendea bakarrik ibiltzen zen, oso estua zenez ez baitzegoen leku nahikorik aziendak, gurdiak edo traktoreak pasatzeko. Hauek errekatik pasatzen zirenez, errekaren zola hondatuta zegoen. Orain zubi zabalago bat egitea pentsatu dute.

### Traste haundiak laugarren asteazkenean bilduko dira hilero

Bolumen haundiko hondakinak hilabeteko laugarren asteazkenean bilduko dira (altzariak, elektrogailuak, koltxoiak, bizikletak...). Traste hauek astearte gauean edo asteazken goizean zaborontzi ondora atera beharko dira. Edozein zalantza izanez gero, arduradunen telefonoak honako hauek dira: Inaxio (649 912534) eta Jexux (649 912528).



Bolumen haundiko hondakinak hilabeteko laugarren asteazkenean bilduko dituzte. Artxibokoa

### Ikastaroak

Ikasturtearekin batera ikastaroak hasi dira dagoeneko. Panderoarena ostiral arratsaldetan, 6etatik 7etara. Trikitixa ikastaroa ere egin nahi da. Horretarako jende kopuru bat bildu beharko da.

## LEITZA

# Zineman aritzeko laguntzaile gehiago behar dira

### Maxurrenea kulturgune bihurtzea eskatuko du Udalak

JOSEBA AZPIROZ

Datorren hilean hasiko den zinemako denboraldi berriari begira, programazio eta emanaldietaz arduratzen diren bolondresak jende gehiagoren laguntza eskatu dute. Zinema gustukoa baduzu eta ihardun honetan parte hartu nahi baduzu eman izena Udaletxean.

Etapa berri honetan, Leitzako zinea bolondres talde baten ekimenez jarri zen martxan, 1991. urtean. Bi arrazoi izan ziren ekimen honetara bultzatu zituenak: alde batetik, zinearekiko duten zaletasuna, eta bestetik, garrantzitsuena, zaletasun hau jendearengan sustatzeko asmoa. Asmo honen arabera egiten dira programazioak neurri handi batean eta genero guztietako filmeak eskaintzen saiatzen dira (umorea, beldurra, erotismoa, zientzia fikzioa, drama, ea.), jendea erakartzeko titulu ezagunak ekarriz. Aurreko denboraldian, eskaini ziren 35 emanaldietara 2.525 ikusle joan ziren eta gehien ikusitako pelikula "Titanic" izan zen -232 ikusle-. Dakizuenez, proiekzioak azarotik apirila bitarte egiten dira, ostiraletan gaueko hamarretan eta igandeetan arratsaldeko 7etan. Ume eta gaztetxoentzat berriz, igande batzuetan, arratsaldeko 4'30etan egiten dira.



**Hasiera ederra eman dio Barriolak lau terdiko txapelketari**

Adituek badakite Abel Barriola, Asegarceko pilotari leitzarrak aparteko dohainak dituela lauterdian aritzeko, baina herrian bertan eman zuen erakustaldia ez da aipatu gabe uztekoa: tantu bakar bakar batean utzi zuen Varela errioxarra. Eskailera horretan, bere lekua dexente gorago dagoela argi azaldu zuen Abelek.

Artxibokoa

### Maxurrenea kulturgune

Maxurrenea eraikina kulturgune bezala erabili ahal izateko proposamena aurkeztuko dio Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari. Proposamen honen arabera, hiru erabilpen nagusi izanen lituzke etxeak: alde batetik, Liburutegia, artxibo eta informatika-gelak. Bestetik Museo etnografikoa eta, azkenik, erakusketa, konferentzia eta bilera aretoak.

Maxurrenea Nafarroako Gobernuarena da eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak irakasleei zuzendutako ikastaroak egiteko erabiltzen du noizbehinka. Beraz, bertan garatu nahi den proiektua aurrera eramateko erakunde honen oniritzia beharrezkoa da. Horregatik, etxearen zesioa eskatuko da, berriro ere.

## flash

**Hiru ehiztariei denuntzia**

Polizia Foraleko Ekologia saileko patruila batek denuntzia jarri die hiru ehiztariei Leitzan, baimenik ez zuten lekuetan uso ehizan aritzeagatik. Eskopetak eta usoak beraiekin eraman zituzten poliziek. Legez kanpoko postuak satelite bidez topatu omen zituzten poliziek.

**Bizimodu osasuntsua**

Nafarroako Osasun Departamenduak, osasuna zaintzeko egiten diren egitasmo eta kanpainak laguntzeko zenbait subentzio eman ditu. Honela, 156.600 pezetako dirulaguntza emanen dio Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari *«Bizimodu osasuntsuen promozioa»* proiektua antolatzeagatik.





**Bidali** TTIPI-TTAPA **herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

✆ (+34) 948 631188

☞ **BAZTAN**

# Hasierako erabakian gibelera egin eta Udal Batzordeetan izanen dira UPNko zinegotziak

EAko Rafael Olaizolak UPNko Leopoldo Jaen ordezkatuko du alkate ordetzan

TTIPI-TTAPA

Balleko Udaleko UPNko bortz zinegotziek parte hartuko dute bokal gisara udal batzorde informatiboetan. Erabaki honen alde agertu ziren EA eta UPNko zinegotziak, EHko biak kontrako botua eman zuten bitartean.

Gogoratuko denez, UPNko zinegotziek uko egin zioten batzordeetan parte hartzeari, eskaintzen zitzaizkien batzordeak hauteskundeetan lortutako emaitzekin bat ez zetozelakoan. Orain, ordea, hori interpretazio akatsa izan zela erran dute UPNkoek eta batzorde guzietan parte hartzeko prest azaldu dira. EA eta EHko zinegotziek *«seriotasun falta»* nabarmendu zuten UPNko zinegotzien jarreran, lehenik batzordeei uko eginez eta gero parte hartzeko asmoa azalduz. UPNko Leopoldo Jaenek hankasartzea onartu zuen.

UPNk batzordeetan sartzeak bertze aldaketa batzuk ere sortu ditu Balleko Etxearen barrenean. Honela, Leopoldo Jaen zinegotzia Gobernu Batzordetik eta alkateorde kargutik kanporatua izanda. Bere lekuan, EAko Rafael Olaizola sartuko da.

Bertze erakundeetan izanen diren udal ordezkariak ere aldatu ziren batzarre horretan. Bertizko Partzuergoa, Cederna-Garalur eta Zahar Etxean alkatea izanen da ordezkaria; Elizondoko Osasun Zentroan Gobernu Batzordeko kideak; Baztan Ikastolan, Txus Barrenetxe; eskoletan, Cristina Arregi; Ehiza eta Arrantza elkartean, alkatea eta Remigio Lizasoain; Kintoako Mankomunidadean, alkatea eta Lizasoain eta Erregerenako Mankomunidadean, alkatea eta Lizasoain.



**Erratzuko emakumeek bisita egin zuten Xalbadorren monumentura**

Erratzuko emakume talde batek Xalbador bertsolariari eskainitako oroitarrirat bisita egin zuten. Bertsolari haundiri bertso hunkigarria eskaini zioten emakumeek:

*Erratzuko andreak Xalbador zure monumentoan*
*denek jarri nahi dugu zure ondoan*
*ikusiz nola zaitugun beti gogoan*
*begira zaude zerutik irri gozoan.*

Argazkia: Xabier Ospital

## Kirikoketa Besta larunbat honetan

Baztango Kirikoketariek eta Kirikoketan Jo ala Jo taldeak, bertze zenbait ostatu, jatetxe, sagardotegi eta Baztango Gazte Asanbladaren laguntzaz antolatuta, larunbat honetan, urriak 28, Kirikoketa Besta eginen da.

Goizez, kirikoketa jotzea izanen da, 10etan Lekarozko Larraldea sagardotegian; 11etan Ordokin, Etxebertzeko, Barrentxeko eta Urtsukodolaretxetan; 11,45etan Iñarbilen, Barrantxeko dolarean eta Gorostapolon, dolarean; 12,15etan Erratzuko lehenagoko dolaretxean eta Arizkunen, 1etan lehenagoko dolaretxetan.

Atsaldez, 4,30etan ezkilen mintzoa aditzeko modua izanen da Elizondo, Elbete, Irurita, Lekaroz eta Gartzaingo eliz dorren artean. Ordu erdi beranduago, Elizondoko plazan, sagar jotzea, talo eta gaztain jatea eta sagar zuku eta sagardo edatea izanen da, txistulari, trikitilari, albokari, txalapartarai, txaranga, adar-jotzaile, dantzari eta bertsolarien laguntzarekin. 7etan kirikoketa jotzea eginen dute Baztango kirikoketariek. Hortik ordu laurdenera, txalaparta jaialdia eskainiko dute Baztan, Burlata, Baigorri, Berriozar, Huarte, Leitza eta Aranoko txalapartariek.

Gaueko 9etan, Abastos Plazan, eguna borobiltzeko herri afaria eginen da. Afalondoan ere, txalaparta doinuek ez dute hutsik eginen, baina horrekin batera, Gorramendi 10, Tomahawk eta K-Haba taldeak ariko dira. Aitor Disk Jockeyak ere bere musika jarriko du eta txalapartarekin gaupasa egiteko modua ere izanen da. Besta egun ederra, beraz, aitzinako tresnaren inguruan.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa



## BAZTAN

# Elizondoko parrokiako aretoa moldatzeko 42 milioi pezetako aurrekontua

Gazteendako biltokia eta katekesia emateko gelak eginen dira

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Santiago parrokiako aretoa moldatu eta katekesia emateko lokalak eta gazteendako biltokia eginen da. 42 milioi pezetako aurrekontua duten lanak dexente aitzinduak daude. Areto zaharra erabat moldatuko da, orain arte zegoen egoera txarrean ezinezkoa baitzen erabiltzea. Lanak akitzerakoan, beheitiko solairuan 105 eta 134 metro koadroko bi lokal izanen dira, 16 metro koadroko zortzi gela lehendabiziko solairuan eta bilerak egiteko 143 metro koadroko aretoa bigarrenean.

Proiektua egiteko 14 milioi pezetako diru-sarrera segurtatuak ditu Elizondoko parrokiak. Honela, lehendik 4 milioi terdi aurreratuak zituen, Gotzaitegiak bortz milioiko dirulaguntza emanen dio, itzultzeko beharrik gabe eta bertze lau milioi terdi Natividad Torres andreak emandakoak dira. Dena ordaintzeko bertze 28 milioi falta direnez, mailegua eskatuko da banketxe batean, pittan-pittan ordaintzen joateko asmoarekin.



**Familian bildutako onddo sorta**
Tarteka-tarteka onddo eder bat edo bertze agertzen da han-hemenka. Baina, aldi berean tamaina horretako hiru topatzea ez da eguneroko kontua. Iruritako Felisa Mendikoak esku artean duenak kiloa eta berrehun gramo ditu. Federico Arraztoa senarrak eta Luis Miguel semeak erakusten dutenak, berriz, 800na gramo pisatu dute. Otordu ederra prestatzen ahal da horrekin, ez da hala?

Aitzinetik, parrokiak elizondarren borondatea eskatu du, haurren eta gazteen formakuntza lanak eginen diren lokalak ordaintzen laguntzeko. Abuztuaren 15ean diru-bilketa egin zen eta laguntza eman nahi dutenek kontu zenbaki bana zabalik dute Iruñeko Aurrezki Kutxa eta Banco Guipuzcoanoko bulegoetan.

Javier Azpiroz apezak zuzentzen duen Elizondoko parrokiak proiektua lehenbailehen burutzea espero du.

### Orreaga Federazioaren besta Baztanen

Pilarika Egunean Baztanen ospatu zuten beraien anaitasun besta Orreaga Federazioko elkarteek. Federazio honetan Nafarroako 40 kultur elkarte biltzen dira.

Bortzehun lagun bildu ziren Amaiurko oroitarrian, «Nafarroa defendatu zutenei omenaldia egin asmoz». Handik oinezko ibilaldia egin zuten Elizondoraino, Abastos plazan bazkaltzeko. Bazkal ondotik, trikitilari eta bertsolariak aritu ziren.

## flash

**Zigako herriari margoa opari**
Ana Mª Marin margolari elizondarrak «Pilareko Prozesioa» margoa oparitu dio Zigako herriari. Margo honetan, urtero Pilarika egunean Egozkuera egiten den prozesioa irudikatzen da. Aspaldiko ohitura hau, duela urte batzuk berreskuratu zen eta Zigako zein kanpoko jende aunitz hurbiltzen da Egozkue jauregian dagoen ermitara. Prozesioa, meza, eta ondotik hameketakoa eta musika izatenda. Margoa, urriaren 10ean bedeinkatu eta Zigako elizan paratu zuten.

**Elikadura hobetuz**
Nafarroako Osasun Departamenduak 424.170 pezetako dirulaguntza emanen dio Balleko Udalari, *«Gure elikadura hobe dezagun»* ikastaroa antolatzeagatik. Jateko ohitura osasuntsuak hartzea da ikastaroaren helburua.

**Almandozko eskola klimatizatzeko**
lanak Iruñeko OHM enpresak egin en ditu, 1.244.000 pezetaren truke. Guraso eta haurrek auniztan eskatu zuten lan hori egitea. Negu honetan ez dute hotzik pasatuko haurrek.


H. Lopez iturgintza
■ Kalefakzioa
■ Gas Instalazioak
■ Iturgintza Industriala
■ Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAZKENEKO ARROPAK
Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntoak, kamisetak, blusak, oihalak...
ESKULANGINTZAKO MATERIALAK

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

## SARA

# Gazteak herrian atxikitzeko Argainea etxandana berria eginen du Herriko Etxeak

Bertzalde, igandean AEK Eguna ospatuko da herrian

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Sarako gazteak herrian atxiki nahirik, Herriko Etxeak lotizamendu berri bat eraikitzea deliberatu du. Hornidurarem Departamenduko Zuzendaritza (DDE) izanen da obren arduraduna. Proiektu horren arabera lurraldea 20 zatitan banatua izanen da, eta 20 zati horietarik 18 Herriko Etxearenak izanen dira eta gainerako biak aitzineko jabearenak. Lur zati bakoitzak, bidea, ur edangarria, argindarra eta telefonoa izanen du. Euri-urak Uharka errekari buruz eremanak izanen dira eta ur zikinak, berriz, herrien arteko sanotze sareari buruz. Etxandana berri hori Argainea deituko da.



**Sarako hilerria handitua izanen da**

Sarakol Herriko Etxeak hilerria handitzea erabaki du. Hortarako hirutan hogoi bat hilobi eginak izanen dire, beheitiko hilerri ondoan. Hilobi horiek bi, hiru, lau, sei edo zortzi gorpurendako lekua izanen dute. Artxibokoa

### AEK Eguna igande huntan

Aitzineko aletan aipatu bezala, igande huntan, urriaren 24an, euskararen aldeko besta handi bat ospatuko da herrian: AEK Eguna.

AEKk Euskal Herriko jende guzieri euskara ikasteko parada eskaintzen die eta Ipar Euskal Herrian ez baitu abantsu diru laguntzarik erdiesten, egun berezi bat antolatzen du, bai bere egoeraren salatzeko, bai diru iturriak biltzeko.

Aurtengo besta Saran izanik, Sarako Gau Eskola da antolakuntza lanetaz arduratzen. Besta, bereziki herriko lau tokitan eginen da:

**Herriko plazan**, egun guzian Larrakaitz txaranga, gaiteroak, joaldunak, trikitilariak eta bertsolariak. 11,30etan, hasierako ekitaldia eta hitz hartzea. Bertsulariak: Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu. Dantzariak: Sarako eta Bermeoko taldeak: Aurreskua, Larrain, Mutxikoak… 12etan Skalariak, aurtengo AEK Eguneko kantuaren aurkezpena. 1etan Saiberri eta 1,30etan Jojo eta Ramuntxo. 3,30etan Dantza piko. 4,30etan AEK Eguneko zozketaren erantzuna eta orenberean, Niko Etxart eta Hapa Hapa. 6,30etan dantzaldia Ekintza taldearekin.

**Trinketean**, egurditan, 2 Kate. 1,30etan perkusioak. 2etan Betagarri. 4,30etan DJ Zulle eta DJ Prest.

**Errebotean**, goizeko 10etan Errebote partidak. 12etan Bide Ertzean. 1,30etan Leihotikan. 3etan Lif. 4,30etan Eztanda.

**Kiroldegian**, egun osoan haurren xokoa: Udaleku, Josekanbudo. 2etan bazkaria. 3etan Kuxkuxtu txaranga eta haurren animazioa. 4etan Gau eskolen arteko txapelketa.

Gune guzietan jatekoeta edateko fango izanen da Eraberean, Gure Irratiak AEK Eguna zuzenean emanen du. Ez hori bakarrik: hemendik aitzin Saraldean frekuentzia berri bat izanen du eta hobe aditu ko da, 90'5 FM frekuentzian.

### Herriko planak berritzen

Buruila hondarretik goiti, kadastreko geometroa eta laguntzaile bat, herriko planak berritzen hasiak dira.

Lan horren karietarat, agiri profesionalak erakutsiz, edozoin etxaldetan sartzerat behartuak izan daitezke topografia lan batzuen egiteko. Herriko Etxeak saratar guzieri langile horieri ongi etorria egitea galdegiten die. Obra horiek hiru hilabeteko iraupena izanen behar lukete. Pazientzia har, beraz!

### Pleka trinketeko 2. mus lehiaketa

Bigarren urtez, Pleka trinketeak bere mus txapelketa antolatu du. Iaz 20 bikote parte hartu zuten lehiaketan. Aurten agian herriko jende gehiago animatuko da!

Izenak emateko azilaren 5a baino lehenago deitu behar da zenbaki honetara: 05 59542206. Partidak ortziral gauez jokatuko dire eta partaide bakoitzak 30 libera beharko du ordaindu parte hartzeko.

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak



HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA



MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19



## SENPERE



**Diamante eta Urrezko Ezteiak ospatu dituzte**
Delphine eta Frantxisku Bereauk duela 60 urte esposatu ziren eta behar bezala ospatu dute Diamantezko ezteiak. Beren aldetik, Dolores eta Frantxoa Fagoagak urrezko ezteiak izan dituzte berriki, duela 50 urte ezkondu zirelakoz. Studio de la Nivelle



**Buruileko elkarteen besta arrakastatsua**
Herriko elkarte ainitzek parte hartu du, hauetan Appel-Detresse batasunak. Munduko behartsuen alde lan egitea da bere xedea. Senpere-Azkaineko Appel-Detresse elkartea saritua izan da, Bretainiako Nantes hirian izan den batzarrean, 25 urteak bete dituelarik. Batasuneko talde guzien artean, hemengoak du lan gehien egiten, jantzi, jateko eta dirua bilduz. Studio de la Nivelle

# Ingurumenari buruzko formakuntzan 210 gazte ari dira Laborantza Eskolan

## Arretxea ikastegian berriz, lau ikasgela berri ideki nahi dituzte

FRANCK DOLOSOR

210 gazte eta 20 erakasle ibilki dira aurten 30 urte dituen Laborantza Ikastegian. Albert Zubillaga, Saint Christophe ikastetxeko zuzendariak dionaz, eskola emaileek esperientzia haundia dute eta aspalditik lan egiten dute Senperen. Ikasleen %30a departamendukoa da, bertzeak kanpotik etortzen dira halako eskola guti baizik ez baita. Hortaz, senpertarrak «kontexko» direla uste du zuzendariak, kanpotar ehun bat gaztek egoitzak alokatzen baitituzte herrian egoteko. Laborantza ikastegian, bi sail nagusitan banatzen da lana, ur-arrain hazkuntza eta ihizi-zaingoa. 16 eta 23 urte arteko gazteek ikas dezakete 2 urtez untsalaz, BEPA, BTA ala BTS sailetan.

Gero gehienek lana badute langile, teknikari ala buruzagi gisan. Ofizio berriak ere sortzen ari direla gogoan du Albert Zubillagak, bereziki ur-erreken kontrolatzaile gisa.

Baionako bidean kokatzen da eskola hunen egoitza beria. Eraikia izan da duela guti, ministeritzak onartu dutelarik BTS saila idekitzea Senperen. Toki gehiago bada orain, lehengo etxea ere baliatzen baiat beti. Gainerat proiektuak ere prestatzen dituztela aitortu dauku ikastegiko zuzendariak.

Bertzalde, Arretxea ikastegian pentsatzen da lanak egitea 4 ikasgela berri idekitzeko. Egoitza berria laborantza eskolaren ondoa eraikitzea pentsatzen da. Aipatzen da ere sail elebidunak zabaltzea Arretxean. Lehen mailetan egiten den eskuararen erakastearen segida segurtatu nahi lukete heldu den urtetik goiti.

## flash

**Xuxentze bat** badugu egiteko, agorrileko artikuluak ez zituelakoz Franck Dolosorek idatzi, Michel Mendibourek baizik. Bakoitzari berea.

**Antzerkizaleek** Kixka taldea badute herrian. Harremanetan sartzeko deitu: 0559540246.

**Elkartetxea** herriko amatxi eta gaztetxoen bilgune izaten da asteazken arratsalde guziz. 2.30ak eta 4.30ak artean eskulanak ikasten laguntzen dute amatxiek. Parte hartzeko deitu Maite Lamiscar, 0559545101.

**Talo gaua** frango poliki iragan da San Josep eskolan duela bi aste. 182 ikasle dabiltza eskola pribatuan, 11 erakasleen laguntza dutelarik. Aipatzekoa da 65 ikaslek sail elebiduna segitzen dutela, erran nahi baita ikasketen erdia eskuaraz eta bertze erdia frantsesez egiten dutela.

RESTAURANT
MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209 • BERA

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx
Kutxa
Kidetza berri bat!
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

## URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Lehendabiziko Xareta Eguna arrakasta politarekin ospatu zen Urdazubin

### Omenaldia eskaini zitzaien Juan Agirre eta Martin Elsori

MARGARI ETA KORO

Arrakasta politarekin ospatu zen I. Xareta Eguna. Lau herrien artean antolatuta, aurten Urdazubin egin zen, eta hortik aitzina herriz aldatuz egiteko asmoa dago (heldu den urtekoa Saran, seguraski).

Nahiz eta eguraldiak ez sobera lagundu ekitaldi guztietara jende franko hurbildu zen. Zikiro-jatea 250 lagunentzat prestatzeko bazen ere, azkenean 280 pertsonentzat egin behar izan zen. Oskorriren kantaldian ere jendea gustura egon zen (hemen, beharbada, kantaldi ondotik dantzaldia edo gaua luzatzeko zerbaiten falta somatu zen). Eta ekitaldi hunkigarriena igande eguerdian egin zen omenaldia izan zen: alde batetik Ainhoako Martin Elso zenari genealogia historiatzaile bezala egin zuen lana eskertu zitzaion eta bere alaba batek bildu zuen plaka. Bertzetik, Urdazubiko Juan Agirreri Nafarroako Artxibotan Urdazubi eta Monastegiari buruz egin dituen ikerketengatik bertze plaka bat eman zitzaion. *«Ordu aunitz eman ditut artxibo eta liburutegietan ikertzen, baina normalean jendeak ez du lan hori kontuan hartzen. Horregatik arras kontent nago omenaldi honekin»* zioen Juanek.



**Juan Agirre urdazubiarrak eta Martin Elso zenak omenaldia jaso zuten, Urdazubiko herria eta monastegia eta Ainhoako historiaren inguruan egin duten lana eskertuz.** Diario de Navarra

### Udazkenerako hiru ikastaro antolatuak

Udazkenarekin ikastaroak ailegatu zaizkigu, eta hiru antolatu dire. Hauetatik bi Nafarroako Emakumeen Institutuak eta Akelarre elkarteak lagundurik antolatu dire: Sukaldaritzakoa Zugarramurdiko soziedadean emanen da eta izena emateko 948 599036 telefonora deitu (Fani); bertzea josketakoa da eta jendearen araberan, Urdazubi eta Zugarramurdin emanen da. Izena emateko 948 599027 telefonora deitu (Anaxtaxi). Hirugarren ikastaroa eskulanekoa da eta hau, beti bezala, Zugarramurdiko ospitalean emanen da. Izen ematea Axuneri, 948 599079 telefonora.


Lanchas

• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

SOULE
Hileta artea
✆ 948 453 444
✆ 908 779 903
ARIZKUN

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun, 25.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 631188

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA · GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Martin Jose Jaurena Azkarraga** eta **Mª Rosario Arretxea Apezetxe**, Amaiur eta Iruritakoa, urriaren 2an.
**Miguel Jose Azkarraga Ariztegi** eta **Mª Blanca Goñi Mitxelena**, Irurita eta Elizondokoa, urriaren 2an.
**Marie Christine Irazoki** eta **Pedro Berasategi Dagerre**, Sara eta Berakoa, urriaren 2an.
**Philippe Gachen** eta **Catherine Geffray**, Sara eta Urketakoa, urriaren 9an.
**Jesus Mari Lukanbio Gonzalez** eta **Rosa Otxoteko Larralde**, Arantza eta Lesakakoa, irailaren 25ean.
**Ramon Sein Eguzkiagirre** eta **Maixe Lizardi Errandonea**, Igantzi eta Arantzakoa, urriaren 8an.
**Javier Romano Gonzalo** eta **Mª Teresa Pikabea Arribillaga**, Tutera eta Berakoa, urriaren 2an.
**Jose Luis Dorremotz Mariezkurrena** eta **Mª Guadalupe Izagirre Pardo**, Bera eta Irungoa, urriaren 9an.
**Jose Maria Villamea Gomez** eta **Edurne Izagirre Etxeberria**, Bera eta Donibane Lohitzunekoa, urriaren 9an.

## JAIOTZAK

**Xabat Etxegia Apezetxea**, Goizuetakoa, urriaren 6an.
**Irati Arrastio Peris**, Doneztebekoa, urriaren 2an.
**Beñat Billabona Gogortza**, Leitzakoa, irailaren 24an.
**Gorka-Max Woischill Viguera**, Leitzakoa, urriaren 2an.
**Ibon Andoni Aguilar Lazkanotegi**, Berakoa, urriaren 5ean.
**David Begino Irigoien**, Igantzikoa, urriaren 5ean.

## HERIOTZAK

**Pedro Mª Jimenez Laborda**, Elizondon, urriaren 1ean, 74 urte.
**Juan Esteban Goia Etxeberria**, Berakoa, urriaren 2an, 49 urte.
**Martin Otamendi Ilarregi**, Berakoa, urriaren 9an, 92 urte.
**Juan Jose Telletxea Estrada**, Lesakakoa, urriaren 11n, 76 urte.
**Manuela Etxepeteleku Pikabea**, urriaren 11n, 84 urte.
**Javiera Grajerena Otxandorena**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 26an, 78 urte.

ARDI beltza

ikerkuntza kazetaritza hilabetekaria

**Urtero 12 aldizkari eta 4 liburu: 12.000 pta.**
***12 revistas y 4 libros al año: 12.000 ptas.***

Izen-deiturak / *Nombre y apellidos*

NAN / *DNI* — Helbidea / *Dirección*

Posta Kodea / *Código Postal* — Herria / *Localidad* — Herrialdea / *Provincia*

Tel. — Fax — E-mail

Aurrezki Kutxa edo Bankua / *Caja de Ahorros o Banco*

Kontu zenbakia (20 digito) / *Número de cuenta (20 dígitos)* ☐☐☐☐/☐☐☐☐/☐☐/☐☐☐.☐.☐☐☐☐☐.☐

Ordainketa mota / *Forma de pago* — Hiruhilerokoa / *Trimestral* ☐ — Urterokoa / *Anual* ☐

Nire Bankuari baimena ematen diot Arakatzen S.L.-ri ❑ hiruhilero 3.000 pta / ❑ urtero 12.000 pta ordain diezaion nire kontuaren kargura.
*Autorizo a mi Banco a pagar a Arakatzen S.L. un recibo ❑ trimestral de 3.000 ptas / ❑ anual de 12.000 ptas con cargo a mi cuenta.*

**Sinadura / *Firma***

# Hasi haritik tiraka.

Izan ere, zure laguntzari esker, ikerkuntza kazetaritzan espezializaturiko aldizkari berri bat sortu nahi dugu urte bukaerarako. Hilabetekari konprometitua izanen da, egia aurretik jarrita, beldurrik gabe haritik tiraka hasiko dena, proiektu hau bultzatzen duen Egineko Ikerkuntza Talde ohiak egiten zuen bezala.

Langileak gara, eta era honetako argitalpenak herritarren dirulaguntza eskatzen du, bere independentzia ziurtatzeko eta banatzaileen monopolioetan ez jausteko. Hori dela eta, aldizkaria harpidetza bidez banatuko da soilik.

10.000 lagunek honelako txartel bana betetzea lortzen badugu, aldizkaria kalean izanen da urte bukaerarako. Bidal iezaguzu txartela gaur bertan, lehenbailehen lanean has gaitezen.

Lehenengo alea jaso arte ez dizugu kobratuko.

# Mindegiak estutu arren Olasagastik jantzi zuen Euskal Herriko aizkolarien txapela

## ■ Erdi lanetan aitzinetik zen Zubietako aizkolari beteranoa
## ■ Felix Etxeberria bosgarrena izan zen eta Jaunarena seigarren

AITOR AROZENA

Urriaren 10ean Doneztebeko eskolako pilotalekuan jokatu zen Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiaren finalerako faborito bakarra zegoen: Igeldoko Joxe Mari Olasagasti. Honela, artekariek bigarren postua nork lortuko zuen edo azkena zein izanen zen edo aizkolari baten eta bertzearen segundu aldea bertzerik ez zuten jokoan. Alde horretatik, pronostikoak bete zirela erran behar da, baina txapeldunak uste baino lan gehiago egin behar izan zuen txapela janzteko.




| Enborra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. OLASAGASTI | 1'02" | 2'55" | 5'12" | 7'54" | 12'18" | 16'51" | 21'22" | 26'08" | 29'01" | 31'30" | 33'38" | 35'37" |
| 2. Mikel MINDEGIA | 1'20" | 3'10" | 5'40" | 8'12" | 12'21" | 16'36" | 21'00" | 26'08" | 29'10" | 32'04" | 34'28" | 36'39" |
| 3.PEÑAGARIKANO | 1'33" | 3'38" | 6'17" | 9'19" | 13'19" | 17'54" | 23'22" | 28'49" | 32'20" | 35'19" | 37'36" | 39'47" |
| 4. NAZABAL | 1'26" | 3'37" | 6'20" | 9'09" | 13'43" | 18'18" | 23'12" | 28'36" | 32'23" | 35'26" | 38'03" | 40'12" |
| 5. ETXEBERRIA | 1'36" | 3'42" | 6'40" | 9'48" | 14'30" | 19'46" | 25'42" | 31'41" | 35'48" | 39'09" | 42'05" | 44'55" |
| 6. JAUNARENA | 1'30" | 3'33" | 6'35" | 9'57" | 15'18" | 20'56" | 26'40" | 33'04" | 37'17" | 40'55" | 44'27" | 47'17" |

Olasagasti podiumaren gailurrera igo da bigarren urtez segidan. Mindegia izan zen azpitxapeldun eta Peñagarikano hirugarren. Nazabal, Etxeberria eta Jaunarenak osatu zuten finaleko seikotea.

Argazkia: Aitor Arozena

### MIEL MINDEGIAK LAN EDERRA EGIN ZUEN

Horren erruduna Miel Mindegia aizkolari zubietarra izan zen. 50 urteak beteak izan arren, hasiera hasieratik gogor aritu zen eta azpitxapeldun izateko zituen arerio nagusiak, Peñagarikano eta Nazabal alegia, gibelean utzi zituen. Ez hori bakarrik: lan erdietan Osalagasti beraren aitzinetik jarri zen, 21 segunduren abantailarekin, ikusleen txalo zaparrada eta oihuak sortuz. Hurrengo enborrean ere abantaila mantendu zuen Mindegiak eta zortzigarren enborra, 72 ontzako azkena, Igeldokoak eta Zubietakoak batera moztu zuten.

Bukaerarako, ordea, enbor ttikiagoak gelditzen ziren eta lan horretan Olasagastiren indarra nagusitu zen. Bukaeran, minutuko aldea atera zion Mindegiari.

### HIRUGARREN POSTUA LORTZEKO ETA AZKENA EZ GELDITZEKO LEHIA

Finala hiru bikotetan banatu zela erraten ahal da: Olasagasti eta Mindegia txapelaren bila; Peñagarikano eta Nazabal hirugarren posturako lehian eta lehendabiziko finala zuten Felix Etxeberria sunbildarra eta Antonio Jaunarena zubietarra azken postuan ez gelditzeko borrokan. Zazpigarren enborrean Nazabal Peñagarikanoren aitzinetik zen, baina bederatzigarrenean aurrea hartu zuen Beizamakoak. Etxeberria eta Jaunarenaren arteko lehian, Zubietakoa joan zen aurretik lau lehenbiziko enborretan. Gero Sunbillakoa hobearitu zen.

Txapela buruan zuela, enbor haundietan zainak atera zitzaizkiola erran zuen Olasagastik. *«Mindegiak meritu haundia du, 50 urtetan horrela aritzea ikaragarria baita, baina egurra gogor xamarra izan dut eta horregatik hurbildu zait uste baino gehiago».*

Mindegia zoriontsu zen bere bigarren postuarekin: *«Aurretik jarri naizenean ere banekien ez nuela txapela jantziko, oraindik lan asko baitzegoen egiteko. Bigarren postua neretzako zela ikusi dut».*

Felix Etxeberria eta Antonio Jaunarena ere pozik gelditu ziren egindako lanarekin, final nagusian lehen aldiz parte hartu ondotik. Sunbildarrak zioen bezala, *«gustora aritu naiz, nire martxan. Olasagasti eta Mindegiarena bertze erritmo bat da».*

# Euskal Herriko binakako erremonte txapelketa azaroan hasiko da

■ Ezkurra Auzmendirekin ariko da eta Lizaso Elizalderekin

■ Finala abenduaren 18an jokatuko da Galarretan

Azaroan hasi eta abendura arte luzatuko da Remonte 2000 enpresak antolatutako binakako Euskal Herriko erremonte txapelketa. Aurtengoan, Espainiako Telebista Kopa izanen du eta Guzira zazpi bikote ariko dira: Zeberio II-Aizpuru, Matxin-Eizagirre, Altuna I-A. Lekunberri, Altuna II-Etxabe, Urretabizkaia-Iriarte, Elizalde-Lizaso eta Ezkurra-Auzmendi.

Gauregungo txapeldunek, Zeberio II eta Aizpuruk, ez dute hasierako liga jokatuko eta finalerdietan sartuko dira zuzenean. gainerako sei bikoteek ligan jokatuko duten guziek guzien kontra eta hiru onenak sartuko dira final erdietan, iazko txapeldunekin batera.



Binakako Euskal Herriko erremonte txapelketaren aurkezpeneko irudia.

Argazkia: Gara

Azaroaren 2an hasiko da txapelketa eta lehen partidua Euskalen izanen da. Ligako azkenekoa azaroaren 27an izanen da. Finalerdiek, berriz, oraindik ez dute data zehatz bat. Finala abenduaren 18an jokatuko da Galarretan.

Doneztebeko bi ordezkariak, Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizaso, sasoi onean ailegatu dira txapelketara eta finalerdietan aritzeko faboritoen artean daude.

# Jon Irazoki V. futbol Memoriala Beti Gaztek irabazi zuen

■ Pilarika egunean 1 eta 2 irabazi zion Gure Txokoari

Pilarika eguneko besta aprobetxatuz jokatu da aurten Jon Irazoki zenaren omenez bosgarren urtez jokatutako futbol memoriala. Orain arte, aurredenboraldian eta hiru talderen artean jokatzen bazen ere. aurten denboraldia hasia denez, Bortzirietako bi taldeak izan ziren aurrez aurre Matzadako futbol zelaian.

Beti Gaztek 2 eta 1 irabazi zion Gure Txokoari. Lesakarrak lehen zatian aitzindu ziren, Saralegiren gol batekin. Ibarra sunbildarrak sartu zuen Beti Gaztekoen bigarrena. Iñakik sartutako golak markagailua estutu bazuen ere, garaikurra laugarren urtez lesakarrentzat izan zen.

Euri langarra ari bazuen ere, jende dexente hurbildu zen bi taldeetan aritutako jokalaria gogoratzera eta aurten haundiek jokatuko duten derbi bakarra ikustera.



Jon zenaren aitak eman zion txapeldunen saria Gorka, Beti Gazteko kapitainari. TTIPI-TTAPA TB

## BOTE pronton

### Lizuniagako Igoera urriaren 31n

Urriaren azken igandean, goizeko 10,30etatik aitzinera burutuko da Beran XIX. Lizuniagako Igoera Kros herrikoia. Gure Txokoak antolatutako proba honetan hamalau urtetik goitiko korrikalariek hartzen ahal dute parte. Horretarako, goizeko 9,30etatik aitzinera ematen ahal da izena. Korrikalariek 4.900 metro egin behar dituzte, horietatik 4.000 igaiten izanen direlarik.

### Gartzaingo Mendi Duatloia

Mitxel Aginaga nagusitu zen Pilarika egunean burututako VI. Mendi Duatloian. Ordubete, 3 minutu eta 35 segundu behar izan zituen bortz kilometro lasterka, 15 mendi bizikletan eta azkeneko 2'5ak lasterka egiteko.

### Gazteen laxoa txapelketa

Iruritako taldeak irabazi du gazteen laxoa txapelketa, finalean Arraiozeri irabazi ondotik. Doneztebe izan da hirugarren eta Oitz laugarren.

### Jon Bru Banestora

Caja Rural taldean ari den txirrindulari beratarrak. Banesto taldearekin eginen du fitxa. Hemen ere, afizionatutan ariko da momentuz, baina etorkizunean profesionaletara pasatzeko aukera gehiago omen ditu.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## FERIAK

**ELIZONDO**

**Urriaren 30 eta 31n** Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**BERA**

**Urriaren 31n** Lurraren Eguna. Altzate karrikan egun osoz.

## ANTZERKIA

**BERA**

**Urriaren 23an** Lamixine BAT antzerki taldeak «Santiagora bidean» kale antzerkilana eskainiko du Berako karriketan. Arratsaldeko 7etan.

**Azaroaren 1ean** Kafe Antzerki zikloa abiatuko da. Goizeko Izarra taldea ariko da Errekalde ostatuan, arratsaldeko 6etan.

## POESIA

**SENPERE**

**Abenduaren 15a** arteko epea eman die Hatsa elkarteak poesia idazten duten guzieri beren olerkiak igortzeko. Gero bilduma batean argitaratuko dituzte. Informazio gehiago 559 54 11 43 telefono zenbakian.

## ERAKUSKETAK

**BERA**

**Urriaren 25etik 31ra** Berako baserriei buruzko argazki erakusketa eginen da Kultur Etxan. 17etatik 19,30etara zabalik.

## TELEBISTAKO TXOKOA

# ttipi-ttapa telebista

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 11:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) Laburmetraiak | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Zuzenean (errep.) |
| 13:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) Laburmetraiak | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Zuzenean (errep.) |
| 17:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) Laburmetraiak | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Zuzenean (errep.) |
| 21:00 21:30 | Berriak Jokoa Solas | Berriak Laburmetraiak | Berriak | Berriak Zuzenean | Berriak Herriz-herri |




## Gaur, Mikel Laboa
### TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Denboraldi berria hasi bezain laster saio berriek salto egin dute ttipi-ttapa telebistako programaziora. Eguneroko ikusle lehialek jakinen duten bezala informatiboaren ondotik saio berexiak eman ditugu: Igantziko Artzai Zakur Txapelketa, laburmetraiak... eta hemendik aitzinera musika emanaldiak eskainiko dituen Zuzenean saioa. Joan den ortziralean Pettiren kontzertua eman genuen, eta gaur, ortzeguna, berriz, Mikel Laboaren kontzertu bikainarekin gozatu ahal izanen duzue.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 3.400 pta.
- Zerri gizena (95-100): 122 pta/kiloa.
- Zerramak: 95-100 pta./kiloa, bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .540
1.koa . . . . . . . . . . . . . .520
2.koa . . . . . . . . . . . . . .490

- Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .560
1.koa . . . . . . . . . . . . . .530
2.koa . . . . . . . . . . . . . .510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 27.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

## ☞ Liburuak




«Kalezuloko animalien itzalak»

Lutxo EGIA

Pamiela

Lutxo Egia Santanderkoa da sortzez, baina gaur egun AEKn dabil irakasle moduan. Liburu hau da argitaratzen duen lehendabizikoa.

Animaliak dira liburuaren haria: hegaztiak, xomorroak, ugaztunak... denetik dago Egiaren bestiario berexi honetan. Baina ezin aipatu gabe utzi Joaquin Resanoren lana, bereak baitira liburua ilustratzen duten hamaika



marrazkiak.

Hona liburuan aurkitu daitekenaren bizpahiru adibide: «Armairuko gakoetan hiru praka, txaleko bat, sei alkandora, jaka bi eta saguzar bat.», edo «Urriko azken eltxo zurbil, umil eta trauskil dantza eroan ibili eta horman hil». Bertze bat: «Zugarramurdiko sorginak bilduta daude kobazuloan. Eskobak eta katuak geratu dira esperoan».

JAKIN BEHARREKOAK

# Euroari buruzko galdemoduak

**NOIZTIK DA EUROA MONETA OFIZIALA?**

Euroa 1999ko urtarrilaren 1etik da euro moneta ofiziala euro zonaldean, eta Europako 11 herrialdetan erabiltzen da. Euro batek 166,4 pezetaren balioa du, edo 6,6 liberaren balioa. Aldiberean, euro bat 100 zentimotan zatitzen da.

**KREDITU TXARTELAK ALDATU BEHARKO DIRA EUROA INDARREAN SARTZEN DENEAN?**

Ez, txartel hauek ez daudelako moneta bakar bati lotuak. Hori bai, txartel bakoitzaren kontu korrontea eurotara aldatzen denean, edo eurotan irekitako kontu berrietan, txarteldun bezeroei erosketen ordainagiriak eurotan ailegatuko zaizkie. Halere, parentesi artean prezioa liberetan edo pezetetan agertuko da.

**NERE AURREZKIENDAKO KALTEGARRIA IZAN DAITEKE PEZETETATIK (EDO LIBERETATIK) EUROTARA ALDATZEA?**

Ez. Euroa indarrean sartzean ez da saldoen balio errea-la aldatuko, ezta kontuen interes mota ere. Zenbatekoak eurotara bihurtzeko borobilketak egin beharko dira batzutan. Pezeta bateko gorabeherak izanen dira.

**NOLA ERAGIN DEZAKE EUROAK KONTRATUEN GAIN?**

Euroaren sarrerak ez du kontratuen jarripenarekin zerikusirik, eta ez ditu lehenagotik zehaztutako baldintzak aldatuko. 1999ko 1aren 1etik kontratuak eurotan edo pezeta-liberatan sinatu daitezke, eta 2002. urteko 1aren 1etik kontratu guziak eurotara aldatuak izanen dira automatikoki.



2002. urteko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean euroa.

acción euro
CAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

## DISKAK




«Fiordoan»

XABIER MUGURUZA

ESAN OZENKI

Jabier Muguruza irundarraren hirugarren bakarkako lana da hau. Mikel Azpiroz pianojolea, Txema Garces baxujolea eta David Gomez perkusionista izan ditu bere ondoan diskoa grabatzeko orduan, baita Jean Louis Hargous ere zenbait kantutan, saxoa eta klarinetearekin. Bertzetik, Amparanoiako kantariaren ahotsa eta Lidia Pujolena ere suma daitezke tarteka.

Denetara hamaika kantu sartu ditu «Fiordoan» izeneko disko honetan. Doinu gehienak berak osatuak dira, baina letretan, berriz, denetarik dago: bere letrak eta bertze idazleei hartutakoak. Bukowskiren poema batetan oinarritua dago, adibidez, «Pantera emea» abestia. Hemen inguruko idazleen poemak ere sartu ditu, ordea, Pako Aristi eta Bernardo Atxagarenak, zehazki.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### KANTALDIAK

**BERA**

**Urriaren 22an** Mikel Urdangarin, arratseko 10etan Kultur Etxean.

### KULTUR EGUNAK

**ARANTZA**

**Urriaren 29,30 eta azaroaren 1ean** Ikus Arantzako berriak.

### AEK EGUNA

**SARA**

**Urriaren 24an** Ikus Sarako berriak.

### KIRIKOKETA BESTA

**BAZTAN**

**Urriaren Urriak 28an** Ikus Baztango berriak.

### DANTZA

**LESAKA**

**Urriaren 24an** Dantzari Ttiki Eguna ospatuko da, Irain dantza taldeak antolatuta.

### OMENALDIAK

**LESAKA**

**Urriaren 30ean** Ikastolako lehen ikasle eta gurasoei omenaldia eginen zaie. Bertso trama, afaria… ikus Lesakako berriak.

### GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

**Urriaren 18tik 24ra** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Urriaren 25etik 31ra** Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

**Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko*
*Iparraldetik 00-34-*
**948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**ADOS**
**IRURITA.**
**- Lur eremu eraikigarria salgai.**
✆ 948 451 841

**GOIKO SL**
**LEITZA. 6 pisu dauzkat salgai. Informazio pertsonala emanen da.**
✆ 649 476 615 • 948 510 346

BEINTZA-LABAIEN. Baserria salgai. Ura eta argia baditu. ☎ 948 450 039.

BEINTZA-LABAIEN. Baserria salgai pistaren ondoan. ☎ 948 450 039.

LEITZA. Pisu bat salgai, prezio onean. ☎ 948 510 484.

BERA. Pio Baroja karrikan pisua salgai, bere bajerarekin. ☎ 948 635 137.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**
**- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.**
✆ 948 451 841

Etxea, baserria edo borda erosiko nuke. ☎ 948 306 502 (Lourdes).

Baserriak, etxeak, bordak, errotak, lur- eremu eraikigarriak, lur-eremu industrialak, zuhaiztiak, pisuak, apartamentuak, txaletak, herentzia osoak moble eta maizterrekin. Eskura ordaintzen dugu. ☎ 948 451 518 edo 600 38 74 08 edo 666 20 63 10.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

BAZTAN-BIDASOA: Etxe bat hartuko genuke errentan. ☎ 948 212 230 edo 948 271 249.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

BERA: 82 m²ko bajera bat salgai Eztegara karrikan. ☎ 948 630 786.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

LESAKA: Lur-azpiko bajera errentan emanen nuke Bittiria karrikan. ☎ 948 637 948.

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

**KULTURKARI**
**Inprenta lanak egiten ditugu**
- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ **948 63 11 88**

## LANA

### 301 ESKARIAK

Kitarra elektrikoa eta armonia (modernoa) klaseak ematen ditut. ☎ 948 630 317 (Joseba).

Kitarra (elektrikoa, akustikoa eta klasikoa) eta baxu klaseak ematen ditut. ☎ 948 630 550 (Fermin).

Emakume batek edozein lan eginen luke egunean 2 edo 3 orduz. ☎ 948 630 238.

28 urteko gazte bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎ 948 630 726.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Neska edo emakume bat behar da Iturenen, Etxandi-Txoko jatetxean lan egiteko. ☎ 948 450 491.

Adineko pertsona zaintzeko eta konpainia egiteko neska edo andrea behar da. Ordutegiaz solastuko gara. ☎ 948 637 034 edo 948 637 780.

Mekanika eta elektrizitateaz ulertzen duen pertsona behar dugu Iruñean lan egiteko. ☎ 629 436 730.

Biltegian lanean aritzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 948 631 394.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

Opel Kadett diesela salgai, NA-AB. ☎ 948 631 177.

Citroen ZX 1.6 i, egoera onean. ☎ 649 782 858.

Yamaha 600 XT salgai, SS-AH. Egoera onean. ☎ 948 634 036 (gaueko 9ak aldera).

Yamaha XT 600 salgai. Egoera onean. ☎ 610 991 670 (19,30etatik aitzinera).

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Corsa GSI, Lada Niva, Feroza, Astra GSI, C-15, Nissan Patrol.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

NISSAN **BERABI tailerrak**
✆ 948 631 445•BERA
Mitsubishi 2.5 TD merkea.
ETORRI ETA IKUSI NISSAN PRIMERA BERRIA

## ANIMALIAK

### 601 OPARI EMATEKO

Hilabete terdiko 4 katakume eta bertze jaioberri bat opari emateko. ☎ 948 637 253.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Limosin arrazako bi zezengai salgai, oso kalitateonekoak. ☎ 689 801 633.

Basurde eta erbi ehiziko zakurkumeak salgai. ☎948 631390.

Bi miga blonda arrazakoak salgai. Ernari daude. Behi gorria salgai, bere aretxearekin. ☎ 948 580 589.

Zakurkumeak salgai Lesakan. Sabueso arraza, erbi eta basurdetarako. 2 hilabete ingurukoak. ☎ 948 637 903 (ilunabarretan).

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

Berako Toki Onako parkean lepokoa harrautu dugu (domina eta katea) irailaren 24an. ☎ 948 630 688.

Berako Polikiroldegiko patioan giltza bat aurkitu da. Toki Ona Institutuan dago.

Berako parkean Euskal Herriko giltzari bat eta pare bat giltza harrautu ditugu. Deitu ttipi-ttapara.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Tolarea salgai sagardoa egiteko. ☎ 943 635 731 (gauez) edo 670 402 577.

Sukalde ekonomiko-kalefaktorea (doratuekin) salgai. ☎ 948 610 783(eguerdi eta arratsetan).

Bideo-jokua salgai, Sega Megadrive, 9 jokurekin. Berri-berria dago. 30.000 pta. ☎ 948 450 082.

Antigualeko mobleak erosten ditut. ☎ 600 387 408.

Marshall JCM 900 anplifikadorea salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 955.

Diego Pons Luthier-ek egindako kitarra salgai. Distorsio pedalak ere bai ☎ 948 630 317 (Joseba).

Nissan kotxearendako 4 aluminiozko llanta salgai, 14 hazbetekoak. Prezio onean. ☎ 948 637 346.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

Urriaren 2an urteak bete ditu osaba Andonik. Zorionak eta aunitz urtez. Etxekoak. Errefuxiatuak etxera!

Donamariako Sara Baleztenari: zorionak 26 urte bete dituzulakoz. Ongi pasa eguna! Leireren partetik.

Doneztebeko Miren Juanotenari: aunitz urtez Sor Mary! Padre Leon eta bere sekito guziaren partetik.

Zigako Ana, Maite, Jon, Angel eta Fernandori: aunitz urtez! Urtebetetzeak ospatzeko afarixke egin behar dugu. Peña Triputxin.





**TTIPI-TTAPA**
- Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

**DIARIO DE NAVARRA**
- Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

**EL DIARIO VASCO**
- Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

**GARA**
- Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

**DIARIO DE NOTICIAS**
- Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

**EGUNKARIA**
- Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko


# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

# Jakinarazten dut:

1999ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

## Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuak ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

## Ordaintzeko epea:

- 1999ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31 arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekarguarekin kobratuko da.

*Bortzirietan, 1999ko urriaren 1ean, PRESIDENTEA*

Miguel Mª IRIGOIEN

# ☞ URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.*

**OHARRA:**
**Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.**



**Unai Arozena Mariezkurrena** zorionak zuri eta zure aita Bixeneri, urriaren 17an urteak bete dituzuelakoz. Muxu bat. Arantza.

**Iñigo** eta **Aitor Irisarri**k 3 urte bete dituzte urriaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat amatxi eta osaba-izebaren partetik.

**Teresa Linazasoro Igoa** beratarrak urriaren 15ean urteak bete ditu. Ongi pasa! Etxekoen partetik.

**Xole Garmendia Etxebeste** beratarrak urriaren 14an bete ditu urteak. Ongi pasa! Aitziber, Ibai, Mikel eta Teresa.

**Nerea Zabaleta Lasarte** leitzarrak 8 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak guraso, amatxi eta Olaiaren partetik.

**Nahia Artieda Noble** beratarrak 11 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak zure familiaren partetik.

**Iñaki Irazoki Ezeiza** elizondarrak 2 urte bete ditu urriaren 13an. Zorionak eta musu bat aita, ama eta Jonen partetik.

**Josetxo Ezkurra Arozena** doneztebarrak 7 urte beteko ditu urriaren 25ean. Zorionak ama eta aitaren partetik.

**Oihana Leizá Alzuart** beratarrak urtea beteko du urriaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



**Lourdes Ansalas Elizalde** beratarrak urteak beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak familiaren partetik.

**Idoia Bergara** aranztarrak urriaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu bat. Mikel eta Ibai. Zure bizilaguna.

**Maite** eta **Xabier Arraztoa Lazkanotegi**k bi urte bete dituzte urriaren 17an. Aunitz urtez eta muxu aunitz attatto eta amattoren partetik.

**Ainhoa Gonzalez Castro** aranztarrak urteak bete ditu urriaren 9an. Zorionak familia eta senarraren partetik.

**Gorka Lucero Garrido** errenteriarrak urriaren 26an beteko ditu 2 urte. Zorionak eta muxu haundi bat Leitzatik.

**Unai Sapuppo** doneztebarrak 6 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak aita, ama eta Txominen partetik.

**Irene Matxiarena** beratarrak urriaren 20an urteak bete ditu. Zorionak amatto! Muxu haundi bat Andoni eta Anttonen partetik.

**Miguel Pikabea** eta **Pilar Irazoki** alkaigarrek urriaren 27an 50 urte eginen dute ezkonduta. Zorionak familiaren partetik.



**Aitziber**ek urriaren 25ean urte bi beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aitatxu eta amatxuren partetik.

**Amaia Telletxea** aranztarrak urriaren 17an 24 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.

**Ana Celina Chaves Iriarte** (Colorado) 3 urte bete ditu urrian. Zorionak! Lesaka, Doneztebe eta Sunbillako familiak. Aupa Pantxito!

Berako **"Itturri"**k 13 urte beteko ditu urriaren 14an. Zorionak kuadrilaren partetik.

**Julen Errandonea Martin** beratarrak 6 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak aita, ama eta Jonen partetik.

**Julen Errandonea Martin** beratarrak 6 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak Lesakako familiaren partetik.

**Iñaki Aranburu Mitxelena**k urriaren 19an bete ditu 8 urte. Zorionak familiaren partetik. Bereziki aita, ama eta Julenen partetik.

**Sheila** eta **Maider Mitxelena**ri zorionak irailaren 24an eta urriaren 25ean urteak bete dituztelako. Zorionak familiaren partetik.

**Olaia Olazar Mariezkurrena** elgorriarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 1ean. Zorionak printzesa. Aita, ama, Xabier eta Sara.

**Sara Olazar Mariezkurrena** elgorriarrak urtea beteko du urriaren 23an. Zorionak pottoka, aita, ama, Olaia eta Xabierren partetik.



**Xuban Larretxea Altzugarai** lesakarrak 2 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.

**Andoni Eizagirre Zubieta** irundarrak urriaren 27an 2 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik. Muxu haundi bat, "mañoso"!

**Alfonso Antuña** sunbildarrak urriaren 23an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat MªAngeles, Oihane eta Ainararen partetik.

**Mª Juliana Otxandorena** oronoztarrak urriaren 24an beteko ditu urteak. Zorionak Berako familia, berexiki Jesus Mª eta Amaiaren partetik.

Zorionak Berako **Eduardo** eta **Irantzu**ri. Eduardok urriaren 12an bete ditu urteak eta Irantzuk 21ean beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez.

**Ainara** beratarrak 8 urte beteko ditu urriaren 24an. Zorionak Julen, atta, ama eta familia guziaren partetik.

**Bittori Elizalde de Elizalde** zubietarrak urriaren 14an 66 urte bete ditu. Zorionak bere senarra, Fermin eta Iruneren partetik. Musu haundi bat.

**Matixa Oteiza Goienetxe** lesakarrak urriaren 25ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

**Uxua Alzugarai Irazoki**k 6 urte beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak eta mila muxu! Etxekoen partetik, berexiki anaiaren partetik.



**Ander Rodriguez Korta** beratarrak 12 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak familiaren partetik.

**Eztitxu Iturria Carrillo**k bi urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak Berako eta Azkaingo familiaren partetik. Muxu haundi bat.

Zorionak **Aliziari** Berako familiaren partetik.

**Naiara Arretxea** sunbildarrak urriaren 28an 13 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta Iturengo familiaren partetik eta berexiki Aitziber.

**Mª Jesus Elizagoien** iturendarrak urriaren 28an 30 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta Iturengo familiaren partetik eta berexiki ilobak.

**Maribel Gorosterrazu** sunbildarrak azaroaren 4an 40 urte beteko ditu. Zorionak famili guziaren partetik eta berexiki alabak.

**Xabier Erasun Elizondo**k urtea beteko du urriaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta Lauraren partetik.

Leitzako **Luis** eta Elizondoko **Patricia** urriaren 23an ezkonduko dira. Zorionak Leitzako lagunen partetik.



19 urteko esperientzia zure zerbitzura

# E Z K A L O

Jose Antonio Elizondo Jauna

INFORMAZIOA: 948 451 518 / 600 38 74 08 / 666 20 63 10 (Doneztebe)

*Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero*



**PERALTA**
- Jauregia salgai, herritik 30 minutura. 180 m2ko hiru solairu, piszina, aldagelak, pilotalekua eta 4.000 m²ko lur-eremui itxia. Residentzia, nekazal-turismo edo bi familiendako egokia. 42.000.000 negoziagarriak.



**ANDOSILLA**
- 30 m²ko etxetxoa eta 800 m²ko lur zelaia. Baimenekin. Oso eguzkitsua, bide ona, ura, eta argia edukitzeko aukerarekin. 2.200.000 pta.



**ULTZAMA**
- Bi solairuko borda salgai, bakoitza 200 m²koa. 6.000 m2ko lur eremua. Herritik 900 metrora. 6 milioi.



**ITUREN**
- Bi solairuko borda salgai. Bakoitza 45 m²koa. Bidea eta ura. Argia edukitzeko aukerarekin. Ameztia parajean.

**ARIZKUN**
- Baserria salgai, lur-eremuarekin. 6.500.000 pta.



**ERRATZU**
- Iñarbil parajea. Borda salgai, urarekin. Bide ona. 1.250.00 pta.



**ARANTZA**
- 3 solairuko baserria salgai herrian bertan. Sei logela, bi sukalde, hiru bainugela, kalefakzioa, bi kotxerendako garajea eta lorategia.

**OIEREGI**
- Etxea salgai. Lau logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, garajea. Tenis zelaia eta frontoiaren ondoan.



**ETXALAR,** Apeztegiko Borda
- Baserria salgai, garaje, aterpea, kalefakzioa eta 28.000 m²ko lur-eremuarekin. 5 logela, sukaldea, 3 bainugela eta egongela tximiniarekin.
- 16.900 m²ko lur eremua salgai. Eraikitzeko baimenarekin.
- Usategien ondoan, 30.000 m²ko lur-eremua eta etxea salgai (1.000 m²). 24 urteko 5.000 pinurekin.

**DONEZTEBE**
- Pisua salgai. Kalefakzioa eta garajearekin. Piszinaren ondoan. 25.000.000 pta.

**IRURITA**
- Borda salgai, 17.000 m²ko lur-eremuarekin. 5.500.000 pta.
- Borda salgai, iturri baten ondoan. 3.500.000 pta.

# MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean

Alkaiaga poligonoa, Sastrin karrika • Lesaka

Tfnoa: 948 630 537 • Fax: 948 631 443




Sarrera Beratik da



**SUKALDEAK**
**LOGELAK**
**EGONGELAK**
**BAINUAK**
**OSAGARRIAK**

# 4.000 m²ko erakustokia

# LURRAREN EGUNA 99

beran

## Urriak 31 igandea

GOIZEAN:

**10,00etan;** Lizuniagako Igoera
**10,30etan;** barazki erakusketa eta sagardo dastatzea • Bortzirietako produktuen salmenta • Sagardo eta Gasna Lehiaketa
**Goizetik;** eskulangileen erakusketa arratsaldeko 6ak arte
**11etan;** Berako Trikitixa Eskola • Musika Eskolako txistulariak • Akordeoilariak • Banda
**12etan;** Gure Txokoako dantzariak

ARRATSALDEAN:

**15,30etan;** talo eta sagardoa • Zizkuitz txaranga
**17etan;** Bertsolariak: Elizagoien eta Irazu • Gasna lehiaketako sari banaketa eta enkantea • Irats trikitixa taldea • Pilota partiduak Eztegaran: Beloki anaiak Errandonea anaien kontra, eta ondotik lau terdiko txapeleketako kanporaketa bat.
**Ilunabarrean,** "Maixa ta Ixiar" taldea





Antolatzailea:
Gure Txokoa Elkartea

Babeslea:
Berako Herriko Etxea

Laguntzaileak:
Berako Guraso Elkarteak
Erausian
IKA
Berako Euskara Batzordea